


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 31 / 498. zenbakia



Bergararen hirigintzako bilakaera Erdi Arotik XVIII. mendera

Horixe bildu du Jesus Gil Massa historialariak liburu batean, eta gaur aurkeztuko dute


APATXI, GAZTETXOENDAKO GEHIGARRIA



GEHIGARRI BEREZIA: 'GOIBEKOKALE'REN 100. ZENBAKIA

BEDELKARREN UDAKO ZOZKETA!

750€ 450€ 300€

**ETA GAINERA, EKAINEKO OSTIRALETAN MUSIKA KALEAN**

7an: Musika Eskolako klarineteak 14an: Musika Eskolako Txistuak 21ean: Jarduneko Trikitixa 28an: Musika Eskolako Saxofoiak

**MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA**
INFORMAZIOA:San Roke Auzoa, 1. ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel.: 943 744 132. Faxe: 943 744 153
Posta elektronikoa: amaia@fmh.es
www.fmh.es


2002-2003 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK**GOI MAILA (A eta D ereduak)**

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industria ekipoen mantentze lanak

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

Ekainaren 5ean atek zabalik, 19:00etan**Izena emateko epea:****ekainaren 3tik 12ra, biak barne**

ATREBENTZIAEZPADA/ Ikerketa baten arabera, ezkontzek gora egin dabe. Zergaittik izan leike?



JONE VELASCO
23 urte



MAITE VALPUEDA
42 urte



JUAN JOSE HERNANDO
74 urte



MIGEL ANGEL VERA
27 urte



ROSARIO DE BENITO
49 urte



LUCIANO ARDUIA
60 urte

Nekeza da hori erantzutia. Moda kontua izan leike lehen ezkontza kopuruak behera egin zeban moduan oin gora egittia. Etxiak erosteko aukera gehixago eukitzia be izan leike.

Igual lehengora bueltatzen hasi garalako izango da, hori izan leike arrazoi bat. Azken urtietan lan gehixago be badago, eta horrek be eragina izan leiki gehixago ezkontzeko orduan.

Nere ustez, gazte jentia nahi dabelako alkarrekin bizi izatia, baiña lehengo erara, hau da, ezkontuta. Auskalo zergaittik izango dan, baiña neuk, behintzat, hori uste dot.

Nere ustez, gizarte hau aurrera biharrian atzera doialako. Lehenagoko ohi-ttoretara bueltatzen hasi garala uste dot, eta urtiak aurrera egin ahala gehixago, gaiñera.

Ez dakit. Ez dot uste moda kontua izango danik. Neuk uste dot gehixago dala kontu legalengaittik. Bikotia konturatzen dielako papel barik, zeozer pasatzen bada, arazuak egon leizkela.

Nik ez dot uste hola danik. Bikotia oin be ez die ezkontzen. Alkartu egitten die, baiña ezkontu ez. Eta ezkontzen dienak batzuetan familixiagaittik izaten da, aitta-amagaittik.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZER JARRIKO OTE DU? Horixe da gure galdera. Zer jartzen du irudiko seinalean? Bere garaian irakurriko zen, baina gaur egun, zuhaixkek eta belarrek estali egin dute guztiz seinalea. Ingu-rua ondo ezagutu ez edo despistaturik dabilzanek jai daukate seinalea dagoen tokira heldu eta Arrasatera joateko bidea erakutsiko diela uste badute. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLA /11

KULTURA /12

Santa Marina parroikia

Uztailean itxi egingo dute, martxora arte, parrokiaren zaharberritze lanei ekiteko.

Annapurnatik bueltan

Jon Lazkano mendizaleak Annapurnan izandako esperientzien berri eman digu.

Bergara eta hirigintza

Gaur, 19:30ean, Jesus Gil Massa Bergarako hirigintza-aren bilakaeraren gaineko liburua aurkeztuko du.

ASTEKODATUA

11

GURE AMESAK KALERATUKO DUEN KANTU KOPURUA

Ekainaren 15ean, Gure Ametsa elkarteak diskoa kaleratuko du. Hamaika kantuz osatuta egongo da: Urretxindorrek taldearen bost, Udal Txistularien Bandaren doinuak eta elkarteko himnoa.

BESTEKEESANA

“

Eurovisiónen lortutako zazpigarren postu ziztrinak uzkurto egin du Aznarren eskutik

horren ondo doan Espainia hori. Tonadillera, Espainiako Rosa gisa bataiatu zuten, haren garaipena espainiar guztiena ere izan zedin. Esnedunaren ipuinean gertatzen den bezala, marmita pikutara joan zen, eta Espainiako Rosaren estropezu musikarekin caudilloaren ametsak amesgaizto izaten amai dezakete. **Buruak eroriko dira eta tonadillera koitadua herrietan barrena boloak egitera bidaliko dute. Eta hori guztia akatsa euren izan zela ez onartzearen, Espainiako Rosaren nahia hasieratik biziata zegoela ez onartzearen.**

MARTIN GARITANO
'Gara'/02-05-29

BERAIEKDIÑO/ Xabier Azkoitia



Zaharberritu beharra daukagulako

BERRIGARAREN ale honetan agertzen den bezala, Bergarako Oxirondoko Santa Marina Parrokiaren eraikina zaharberritze prozesu batean sarturik dago. Orain dela egun gutxi, Santa Marina Parrokiaren eremuaren barnean bizi diren herrikideei bidaltzen zitzaien eskutitzean adierazten genien moduan, iaz eginiko inkestaren emaitzen ondorioz, eta Parrokiaren egoitza den eraikinaren egoera ebaluatu ondoren, halabeharrez hasi egin beharko ditugu uztailearen amaieran zaharberritze lanak. Neurri batean badu balore sinbolikoa egitera goazenak. Ez da bakarrik eraikina zaharberritu behar, gure eliza elkarteak ere zaharberritu egin behar du. Eta, horretarako, badaude hainbat gauza egiten ari garenak, gero ere egiten jarraitu egin beharko ditugunak.

Lehenik eta behin, entzun, aditu, arreta jarri, esaten

zaigunari. Elkarri esaten diogunari. Era horretan, ikasle jarrera berreskuratzeko. Eta *Asanblada* esan nahi duen *Ekklesia* hitzak bere esanahia berrindartzeko.

Baina, baita ere entzun egin beharko dugu elkarteari esaten zaiona. Aita-Amatzat dugun

Jainkoa munduan dago, eta elizan izango da eliza hori munduan dagoen neurrian. “Zuek zarete munduaren argi” eta horregatik eta horretarako zaharberritu egin nahi dugu, eskutik eskura zabaltzeko doan eman zaigun argi puntta.

Baina beste zerbait gehiago ere esaten zaigu. Etxe handi horretan Eukaristia ospatzera biltzen gara. Ez ekintza liturgiko bat antzerki gisan berritu egin nahi duena garai batean eginikoa. Ez, hori ez. Aldiz, berritu egin nahi duguna beste zerbait da, sufritzen ari diren kiko konpromisoa, zeren eukaristia mahaiaren lau hankak behartsuenenganako aukeran dute bere izatea.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 31**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 1**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 2**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 3**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 4**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 5**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 6**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emalleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegaraieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotako enafaria ekainaren 1ean, Azpeitxi jaietxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinaran.

1960AN JAIOTAKOAK
1960an jaiotako enafaria ekainaren 1ean Torrekua jaietxean, 21:00etan.

1958AN JAIOTAKOAK
1958an jaiotako enafaria ekainaren 15ean Azpeitxi jaietxean. Izenematea (12 euro) Irrintzi kafetegian.

ODOL EMALEEN BATZARRA
Debagoieneko eta Debabarreneneko odol emaleen batzar orokorra izango da ekainaren 16an Arraten. Ondorengo bazkarirako txartelak Puy eta Guallar farmazietan edo San Antonioko Agirrebeña jantxidendan eskura daitezke, 23 euroren truke.

FUTBOLIN TXAPELKETA
LAMEK antolatutako futbolin txapelketa domekan, ekainaren 2an, Oilagorri eta Pol-Pol tabernetan, 18:00etatik aurrera. Izenematea, 5 euro.

BATASUNAREN ZOKKETA
Zuberoa ezagutzeko Batasunak zokketatutako lau eguneko bidaiak 780 zenbakiarendako izan da.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO AISIALDIA
Zapatuan, bolo, toka eta igela jokoak San Joxepen, 16:00etan, Olinpiaden barruan. Kartzela, domeka arratsaldean, zabalik.

JOLASLEKU IBILTARIA
Egubakoitzean, ekainaren 7an, jolasleku ibiltaria Espoioan, 17:00etatik 19:00etara.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorluzze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jaietxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Pol-Pol elkartearen espedizioa Himalaiara

Pol-Pol elkartearen 50. urterreneko ospakizunen barruan, 1992ko maiatzean, Himalaiarako espedizioa abian jarri zuten. Jon Lazkanok, Kike De Pablosek, Damaso Gallastegik eta Luis Goenagak osatutako espedizioak Dhaulagiriko (8.172 m.) gailurra zapaltzeko helburua zuen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zintzurra"

Eztarriko irtenunea.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Domeka, 26 **6 °C**

MAXIMOA
Egubakoitza, 24 **24 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **36,5 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 22	20 °C	13 °C	19,6 l/m²
Eguena, 23	23 °C	19 °C	- l/m²
Egubakoitza, 24	24 °C	7 °C	9,6 l/m²
Zapatua, 25	16 °C	10 °C	- l/m²
Domeka, 26	12 °C	6 °C	4,5 l/m²
Astelehena, 27	16 °C	7 °C	- l/m²
Martitzena, 28	23 °C	7 °C	2,8 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'EL REY ESCORPIÓN'

ZUZENDARIA: CHUCK RUSSELL. AKTOREAK: THE ROCK, STEVEN BRAND, KELLY HU.


HARIA. Eskorpioi erregearen istorioa kontatzen da antzinako Egipton girotutako gerrako film horretan. Tribuen arteko intrigak eta bataila odoltsuak dira oinarria, abentura epiko baten erdian.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



ZABALA JAIETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

ONDAREA/ Parrokia kanpoko eta barruko aldetik konpontzeaz gain, argiteria eta berogailu sistema berriak jarriko dituzte

Zaharberritze lanekin hasteko, uztailean, itxi egingo dute Santa Marina, martxo arte

MONIKA BELASTEGI


Uztailaren hasieran, Santa Marina parrokia itxi egingo dute eliza barruko zein kanpoko aldetik txukundu eta zaharberritzeko. Obra horien helburua da elizaren erabilpena ziurtatzea eta patrimonioa zaintzea, Xabier Azkoitia parrokoaren esanetan.

Zortzi hilabetez egongo da itxita parrokia; uztailetik martxora arte, eta bien bitartean, San Pedron parrokian eta San Lorentzon esango dituzte mezak.

Ixteko arrazoia da parrokian egin behar dituzten lanak. Lan horiek lau fasetan banatu dituzte, eta guztira 1.300.000 euro inguruko aurrekontua dute.

Lehenengo fasean edo egitekoan, argi instalazio berria teiltatu azpira igoko dute, eta gangak zulatuz, erlaitzera eta zutabeetako mentsuletara eramango dute argindarra. Hor iluminazio berria ere jarriko dute. Hori guztia egiteko aldamiok jarri behar direnez, beste lan batzuk egiteko ere aprobetxatuko dute: ganga azpiak begiratu, nerbioak garbitu, korua, zutabeak eta eliz barruko hormak konpondu eta azken horiek pintatu ere bai; megafonia berria ere jarriko dute.

Lan horiek amaitu ondoren, berogailu sistema berria sartuko dute lur azpian. Horretarako, zorua altxatuko dute, eta ondoren, egur berbera jarri. Berogailuari dagokionez, orain artekoa 1995. urtean jarri zuten. Horrek haize beroa botatzen du eta, Xabier Azkoitia parrokoaren esanetan, instalazio elektriko guztia kalte du, arriskutsu izateraino. Gainera, erretaularendako ere oso kaltegarria izan da. Lehenengo



JESUS LASKURAIN

Jaurlaritzaren eta Diputazioaren laguntza izan du Santa Marina parrokiak lanei aurre egiteko; Udalak ere emango du laguntza, nahiz eta hitza eman barik egon oraindik.

fase horren aurrekontua 523.500 euro ingurukoa da.

ONDAREA ZAINTEZA HELBURU

Elizaren erabilpena ziurtatzeaz gain, ondarea zaintzeko helburua

Eliza itxita dagoen bitartean, San Pedro parrokian eta San Lorentzon emango dira mezak

ere badute lanek. Kontuan izan behar da, gainera, bai parrokia, baita erretaula nagusia ere Monumentu izendatuta dituela Eusko Jaurlaritzak. Hori horrela, bate-tik, sakristau etxea konponduko

Obren helburua da elizaren erabilpena ziurtatzea eta ondarea zaintzea, besteak beste

dute. Etxe osoa hustuko dute, eta pisua kenduz eraikinari, egitura indartu egingo zaio eta barruko espazio guztia berreskuratuko da. Gainera, komunak jarriko dituzte beheko solairuan eta igo-

Obrak nola egingo diren azaltzeko erakusketa txiki bat jarri dute parrokian herritarrendako

gailu bat. Horrek, 260.900 euro inguruko aurrekontua du.

Bestetik, erretaula nagusia, aldameneko erretaula txikiagoak, koroa eta hormetako koadroak garbitu eta txukundu egingo dituzte. Kanpoko aldeari dagokionez, horra ere helduko dira berritze lanak: hormak garbitu eta zahar berritu egingo dituzte. Lan horien aurrekontua 483.800 euro ingurukoa da.

Lanak nola egingo dituzten azaltzeko, Jesus Laskurainek egindako proiektua eta hainbat argazki jarri dituzte ikusgai parrokian, 9:00etatik 19:00etara.

'Armilaria' onddoak zedroak kaltetu ditu

MONIKA BELASTEGI

Arrizuri eta Errekalde parkeetako zedorik handienak *Armilaria Melea* gaixotasunak jota daude. Hori horrela, Bergarako Udaleko Ingurumen batzordeak gaitzari aurre egiteko beharrezkoa den tratamendu fitosanitarioa emateko helburuarekin, Parques y Jardines SA enpresa kontratatu du.

'ARMILLARIA MELEA'-REN KALTEAK

Armilaria lurrean dagoen onddo *xaprofito* bat da, eta onddo horrek sustrai eta egur ustel-

duetan eragiten du. Arrizuri eta Errekalde parkeetan dauden zedroak Atlaseko zedroak dira. Zuhaitz mota horri zorriek hostoak jaten badizkiete, adar eta sustraien oreka apurtu egiten da, eta ondorioz, sustraiak usteltzen hasten dira. Orduantxe eragiten du *Armilaria* onddoak.

Duela bost urte, Errekaldeko zedroetako bat bota egin behar izan zuten, gaitzaren eraginez guztiz ustelduta zegoelako. Orain, zortziren bat zedro daude gaixorik, eta egingo dieten tratamenduak 1.850 euro inguruko aurrekontua du.



Armilaria Melea lurrean dagoen onddo bat da, eta zedroari eraginez gero, hil egin dezake.

MONIKA BELASTEGI


ONDAREA/ Besteak beste, XVI. mendeko San Adrian ermitatik geratzen diren jatorrizko elementuak zaindu eta bultzatzeko proposatu dio Diputazioari

Udalak hainbat alegazio egin dizkio 'Ondartza' baserria berritzeko proiektuari

MONIKA BELASTEGI

Foru Aldundiak *Ondartza* baserria eraberritu eta birgaitzeko egin duen proiektuari bost iradokizun, alegazio eta proposamen egin dizkio Udalak. Helburu nagusia da baserriaren eta atxikita duen San Adrian ermitaren jatorrizko elementuak zaindu eta nabarmentzea.

Martxoan onartu du Diputatuen Kontseiluak *Ondartza* baserria eraberritu eta birgaitzeko proiektua; baita lanak burutzeko milioi bat euro inguruko aurrekontua ere. Bi xede nagusi ditu: batetik, baserria txukuntzea, eta, bestetik, erabilera berria ematea. Erabilerari berri hori bikoitza izango da. Alde batetik, A-1 autobideko tunelen zaintzarako zentroa jarriko dute. Horrez gain, autobideko segurtasun eta mantentze lanetarako materiala gordetzeko biltegia, bilera gela bat eta artxiboa ere izango ditu. Beste aldetik, autobideko lanak nola egin diren azaltzeko erakusketa jarriko dute, eta besteak beste azpiegituraren maketa egongo da.



Ondartza baserriari atxikita dagoen San Adrian ermitaren gaineko lehen aipamen dokumentala XVI. mendekoa da.

UDALAK BOST ALEGAZIOA

Udaleko Hirigintza eta Kultura batzordeek bost alegazio egin dizkiote Diputazioaren proiektuari; Kulturakoak bi eta Hirigintzakoak hiru, guztiak *Ondartza*

baserriaren zaharberritzearen gainean. Izan ere, *Ondartza* baserria eta berari atxikita dagoen San Adrian ermita -ermitaren gaineko lehen aipamen dokumentala XVI. mendekoa da- Balizko

Arkeologia gune izendatuta ditu Jaurlaritzak duela bost bat urte.

Hori horrela, honako alegazio, iradokizun eta proposamenak egin dizkiote Aldundiko proiektuari: batetik, Balizko Arkeologia

gunetan obrak egin aurretik promotoreak gunearen balio arkeologikoa eta egin behar diren obrek gunean izan dezaketean eraginaren gaineko ikerketa egin behar du, horren ondoren erabaki ahal izateko gunean interbentzio arkeologikorik egin beharko den.

Bestetik, baserriaren eta berari atxikitako San Adrian ermitan geratzen diren jatorrizko hainbat elementu zaintzeko eta nabarmentzeko ere eskatu diote Diputazioari. Honako hauek: baserriaren kasuan antzinako leiho eserlekudunen arrastoak, eta ermitaren kasuan, ate dintelduna, ur bedeinkatuaren harrizko ontzia, ermita barruko harrizko mentsulak, bi eraikinak komunikatzeko erabiltzen zen atea eta oiloak gordetzeko erabiltzen zuten nitxoak.

Hirigintzako alegazioen kasuan, besteak beste, fatxadari atxikitako terraza kentzea proposatu du Udalak, baserria baino berriagoa delako.

Udalak bidali ditu dagoeneko alegazioak Foru Aldundira, baina Udaleko iturrien esanetan, oraindik ez dute erantzunik jaso.

Osintxun zubi berria egiteko akordioa Udala eta Soraluze S. Coop-en artean

MONIKA BELASTEGI

Udalak eta Oxintxuko Soraluze lantegiak sinatuko duten akordioa asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten. Akordioaren arabera, Soraluzek aurtengo abenduaren 31 baino lehenago hasi beharko ditu zubi berria eraikitze lanak. Gerorondo inguruan egingo dute.

Udalak eta Soraluze S. Coop-ek datorren astean sinatuko duten hitzarmena EAJ-EA eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin onartu zuten asteleheneko udalbatzan. Hitzarmenaren xedea da, Osintxun zubi berri bat eraikitzea: industrialdea Gerondoko esparruarekin lotuko duen zubia, hain justu. Izan ere, aipatutako enpresak Osintxu auzo erdialdean dagoen zubia erabili izan du orain arte; XVII. mendeko zubia.

Batasunak, ezezko botoa eman zion hitzarmenari asteleheneko udalbatzan. Kontua da hitzarmenak jasotzen duela Udalak zubiaren finantziazioan lagundu egingo duela. Zehazkiago, hirigintza aprobetxamenduari dagoen %10arekin, hau da, 15.413,71 euroekin. Batasuneko kideen ustez, kopuru hori zubia eraikitze bakoitzeko bakoitzeko, XVII. mendeko zubi



Pisu handiko kamioien joan-etorriak XVII. mendeko zubia kaskartu dute.

zaharra konpontzeko erabili beharko litzateke, izan ere, industrialdetik ateratzeko modu bakarra zubi zaharra igarotzea zenez, bertatik pasatu diren pisu handiko kamioiek guztiz kaltetu dutelako. Hortik Batasuna taldearen ezezkoa Udala eta Soraluze enpresaren arteko hitzarmenari. Victoriano Gallastegi alkateak erantzun zuen, edozein modutan ere zubi zaharra konpontzeko asmoa zuela aurrez Udalak.

OBRAK ABENDUAREN 31 BAINO LEHEN Hitzarmenak zubia eraikitze epeak ere zehazten ditu. Alde batetik, aurtengo urriaren 31 baino lehen zubia eraikitze obrak esleitzera behartzen du Soraluze S. Coop enpresa, abenduaren 31 baino lehen lanekin hastera.

Bestetik, aurrerantzean enpresa handitzen bada, ibaiaren ertza urbanizatzeko konpromisoa ere hartu du. Hitzarmena datorren astean sinatuko dute.

Hamaika kantako diskoa kaleratuko du Gure Ametsak

MONIKA BELASTEGI

San Antonioko Gure Ametsa elkarteko Kultura batzordeak hamaika kantuz osatutako CDA aurkeztuko du ekainaren 15ean. Diskoan *Urretxindorra* taldearen bost kantu egingo dira; horietako lau, inoiz grabatu gabeak. Bestetik, Ramon Etxaniz txistulariak elkarteari egin zuen himnoa ere jasoko du diskoak, *Urretxindorrek* taldeak abestuta. Azkenik, Udal Txistulari Bandak jotako beste bost pieza ere egingo dira. Gure Ametsako kide-

en esanetan, ehun bat kopia jarriko dituzte salgai, elkarre inguruko jendearendako, batez ere, nahiz eta kopurua handiagoa ere izan daitekeen eskariaren arabera.

Kapera tokiz aldatu dutela ere azaldu zuten Gure Ametsako kideek. Behin-behineko kapera berria Mintegi kalera eraman dute, eta ekainaren 5ean inauguratuko dute. Horrez gainera, ekainaren 13an, urtetan San Antonio ermita zaintzen jardun duten lau lagunaren omenez, afari-omenaldia egingo dute.



Lucia Farras, Elisabet Agirrezabal, Carmen Garai eta Jesus Igartua omenduko dituzte.



Ilegalizazio prozesuaren barruan, herriko hiru egoitza enbargatuta eta kontuak blokeatuta ditu Batasunak.

ARTXIBOA

OSOKO BILKURA/EAJ-EAk aurkeztutako kontrako mozioak egin du aurrera

Batasunak ilegalizazioaren gaineko mozioa aurkeztu du

MONIKA BELASTEGI

Astehenekoko osoko bilkuran izan zen hori. Taldearen ilegalizazioari buruzko mozioaz gain, beste lau ere eraman zituen Udalbatzara. EAJ-EAk, berriz, demokrazia eta askatasuna defendatu eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko Eudelen adierazpena.

Batasuneko mozioen artean, Euskal Herriak bizi duen gatazkaren gainekoa aurkeztu zuten. Mozioaren testuak jasotzen duenez, behin betiko konponbide baterako ezinbestekoa da esparru demokratikoa osatzea, non eskubide guztiak, kolektiboak zein banakoenak, errespetatu egingo diren. Era berean Udalarari eskatzen dio, nazioarteko erakundeak araututako eskubide guztiekiko konpromisoa hartzea.

Mozioak ez zuen aurrera egin, EAJ-EA eta PSE-EE alderdien aurkako botoa jaso zuelako. Victoriano Gallastegi alkateak azaldu zuenez, ondorengo beste mozio batek gaia jasotzen zuelako eman zitoten ezezkoa.

ILEGALIZAZIO PROZESUA

Bere taldearen aurkako ilegalizazioaren gaineko mozioa ere aurkeztu zuen Batasunak astehenekoko bilkuran, eta EAJ-EAk gai berberaren gaineko kontrako mozioa. Hori horrela, eta halako kasuetan egiten den bezala, kontrako mozioa bozkatu zuten lehengo. Kontrako mozioak alderdi guztien oniritzia jaso zuen PSE-EEren ezezkoa izan ezik. Hala ere, Batasuneko kideek, funtsean bi mozioek mami berbera izanik, ez zuten kontrako mozioa aurkezteko beharrik ikusi.

Onartutako testuaren arabera, Udalak zera adierazten du: koherentzia demokratiko hutsa gatik, oinarritzko askatasun eta

eskubideen defentsa bermatu izan behar dela, eskubide edo askatasun horien titularrekiko batzuek zein besteek izan dezaketen begikotasun edo iritzi politikoaren gainera. Gainera, Udalak adierazten du ilegalizazio prozesu horiek Espainiako Konstituzioan espresuki jasota dauden askatasun ideologiko, adierazpen askatasun, elkarte askatasun edo hiritarren parte hartzea bezalako eskubide eta askatasunak murrizten dituztela. Baita oinarri juridiko gutxi dutela ere.

ADIERAZPEN ZIBIKOA

EAJ-EAk demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko Eudelen adierazpen zibikoa onartzeko proposamena eraman zuen bilkurara. Batasunak kontrako mozioa aurkeztu zuen arren, gobernuko taldearenak egin zuen aurrera EAJ-EA eta PSE-EEren aldeko botoekin. Batasuneko kideek aurka bozkatu zuten, eta gainerako alderdietako kideei heriotza ezberdinen aurrean jarrera ezberdinak hartu izana leporatu zieten.

Batasunaren ilegalizazioaren aurkako mozioa onartu du Udalbatzak

Basalgoko pilotalekua estaliko dute gehiago aprobetxatzeko


MONIKA BELASTEGI

Basalگو auzoko pilotalekua estaltzeko proiektua eta baldintzak onartu ditu Bergarako Udalak; baita lanak esleitzeko baldintzak kaleratu ere. Lizitazio oinarria 99.631,29 eurokoa da (16 milioi pezetatik gora), eta helburua da orain dagoen pilotalekuari teiltua egitea, pilotalekua estaltzea, azken baten.

BESTELAKO EKITALDIETARAKO ERE BAI Basalgoko pilotalekua estaltzeko eskaria auzotarrek egindako

eskaria da. Batetik, pilotan egiteko gehiago aprobetxatuko litzateke estaliz gero auzotarren ustez, meteorologiak ez lukeelako hainbeste baldintzatuko haren erabilera; bestetik, bestelako ekitaldietarako ere erabili ahal izango lukete, auzoko jaietako antolatzen dituzten ekitaldietan, besteak beste.

Esan bezala, Udalak kaleratu ditu lanak esleitzeko baldintzak, eta presako prozeduraz, gainera, pilotalekua estaltzeko lanak lehenbailehen bukatu nahi dituzte-eta.



ARTXIBOA

Estalita, pilotalekua gehiago aprobetxatuko dela uste dute Basalgoko auzotarrek.

Bihartik astelehenera arte Otaba jaiak izango dira Elosun

MONIKA BELASTEGI

Etxafuego jaurtiketarekin eta kanpai hotsarekin hasiko dira jaiak bihar, 15:00etan. 15:30ean, Mus Txapelketa egongo da Elurmendi elkartean, eta 17:00etan, haurrentako jolasak. 18:00etan, txokolate-jana egongo da, eta 21:30ean, bertso afaria Ixaun sagardotegian, Joxe Agirre eta Irazu bertsolariekin.

Domekako ekitaldiei Lutxurdio eta Aitziber soinu jotzaileek emango diete hasiera, 11:15ean, eta 11:30ean meza nagusia egongo da. Ondoren, 12:15ean pilota partiduak egongo dira. Arratsal-

dean, 16:30etik aurrera umeendako zezentxoak eta poniak izango dira, 18:00etan, berriz, herri kirolen jaialdia. Batetik, Fausto eta Bihurri aizkolariak egongo dira, eta, bestetik, Goenatxo eta Elosu-Korta harri jasotzaileak. Horrez guztiaz gain, Elosuko argazki zaharren erakusketa egongo da egun osoan zehar.

Astehenean ere izango da zer ikusi Elosun. 13:00etan hildako auzotarren aldeko meza egongo da. 15:00etan auzo bazkaria izango da Elurmendi elkartean, eta 20:30ean, berriz, auzo afaria, Laja eta Landakanda soinu jotzaileek alaituta.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!


Telefona: 943 76 16 63. BERGARA

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A



UME DANTZARIZ BETE ZIREN KALEAK DOMEKAN

Bostehunetik gora neska-mutiko dantzari elkartu ziren joan den domekan Bergaran, XXIX. Haurren Euskal Jaia ospatze aldera. Hainbat ekitaldi egon zen egun osoan: kalejirak, herriko hainbat tokitan dantza saioak... Herriko kaleak dantzaz eta Euskal Herriko dantzari txikiz bete ziren. Eguraldiak ere lagundu zuen eta, argazkian ikus daitekeen moduan, jende mordo bat zen San Martin plazan goizeko ekitaldi nagusian, alkate txikien agurra eta umeen dantza saioa ikustera.



HAN ETA HEMEN JOLASEAN

Boluko plazan egon zen joan den egubakoitzean jolasleku ibiltaria. Han izan ziren Jarduneko dinamizatzaileak herriko umeekin jolasean. Aurpegiak margotu, marrazkiak egin... denerako jolasak egin zituzten. Egubakoitzero, herriko hainbat tokitan elkartuko dira. Datorren astean, esate baterako, Espaloia jolasleku bihurtuko dute.



UDALTZAIN LANARI AGUR

Hogeita hamabost urte egin ditu udaltzain lanetan Secundino Rodriguezek: zenbat isun, zenbat azalpen galduta zebiltzan gidariei, zenbat lan! Baina iritsi zaio erretiratzeko ordua. Maiatzaren 16an erretiratu zen, eta egun batzuk lehenago, maiatzaren 4an, hain zuzen ere, agur-afaria egin zioten lankideek. Opari polit bat ere egin zioten lankideek, zilarrezko erloju bat, nahiz eta hemendik aurrera erlojuaren gero eta behar txikiagoa izango duen, seguruen.



DENBORALDI AMAIERAKO JAIALDIA

Futbol denboraldia amaitu dela eta, jaialdi polita antolatu zuten Peña Athletic taldekoek joan den asteko zapatuan. San Martzialen ospatu zuten egun hori eta 48 lagun elkartu ziren, ume, gazte eta nagusi; hantxe egin zituzten bai hamaiketakoak, baita bazkaria ere. Soinu jotzaileek jardun zuten eta umeendako jolasak ere egon ziren.



BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79

BERGARARRAK MUNDUAN

USOA MENDIKUTE

25 URTE / SUKALDARIA / LONDRES

“Lehen ere erakartzen ninduen Londresek, eta orain, gero eta gehiago”

AINTZANE IRIZAR

Kanpora joateko gogoaz zeukan Usoak; Oihana bere lagunak gomendatuta, Londresera joan zen. “Ingelesa ikasteko aitzakiarekin etortzen gara gehienok, baina nik zer edo zer ezberdina ezagutu nahi nuen”, diosku. Urte eta erdi inguru pasatu da ordutik hona, eta oso gustura dago Londresen. Horren seinale da lau hilabete pasatzeko asmoarekin joan zela.

“Hasiera-hasieratik oso zorte ona izan nuen. Hona iritsi eta ostatu baten egon nintzen lau egunez; besterik ez eta hantxe lana eskatu nuen”, gogoratzen du Usoak. Eta hala, ostatuko hura izan zen bere lehendabiziko lana Londresen; garbiketa lanak egiten zituen han. Gero, sandwich denda baten topatu zuen lana, eta hantxe dihardu orain dela urtebete inguru ezker.

“Ezagutu aurretik ere asko erakartzen ninduen Londresek, eta orain, gero eta gehiago erakartzen nau”, azaldu digu. Museoak eta kultura eskaintza zabala hain gertu edukitzea oso gustuko du.

Gainera, bizi izaten erakutsi ei dio Ingalaterrako hiriburuak. “Etorri nin-

tzenean ez neukan ez lanik, ez non lo egin eta ez ezer; eta bizi-modua topatu behar duzu. Horrelako egoerek asko irakasten dizute”.

Bestalde, Londresen era guztietako kulturak elkar bizi-tzen dira, eta hori oso gustuko du Usoak: “Munduko kul-

“Londresera etorri nintzenean, zer edo zer ezberdina ezagutu nahi nuen”

turak, ohiturak, hezkuntza... denetik ikasten duzu eta hori oso aberasgarria da”.

Usoa gustura dagoen arren, ezagutzen ditu denbora gutxira alde egin zuten lagunak ere: “Hemen, zabala, irekia izan behar duzu; itxia baldin bazara, ez daukazu zereginik, elkar bizitzen ikasi behar da hemen”, diosku.

Momentuz han jarraitzeko asmoa dauka. Bere ingelesa asko hobetu dela-eta, orain artearen alorrean lanen bat topatzeko esperantza dauka.



MINGAINARITIRAKA



Nikolas Arzelus

ERRETIRATUA

Nikolasek 73 urte dauka eta astero-astero fin-fin hartzen dau parte Bonofotua lehiaketan. Harakiña eta matarifia izendakua da, eta oin dala zazpi urte erretirau zan.

Noiz hasi ziñan Bonofotua-n parte hartzen?

Lehenengo-lehenengotik parte hartzen dot. Hasieran, baserriaren gaineko pre-guntak ekartzen zittuan asko; eta nik baserri danak ezagutzen dittut, txarrihiltzen jarduten neban-eta. Holaxe hasi nitzan parte hartzen.

Zenbat aldiz irabazi dozu sarixa? Andriaren eta bixon artian, lau bat bider. Eta gero, zeu juten zara irabazitako txartelakin erosketak egittera?

Bai; andriak eta bixok egiten dittugu erosketak, soziuak gara-eta. Lehen, afarixa izeten zan lehiaketako premixua, eta orduan be bixok jun giñan afaltzera.

Hortaz, aldizkari osua irakurtzen dozu.

Bai, eta gustora, gainera; asko gustatzen jat aldizkarixa.

Ze da gehixen gustatzen jatzena? Dana; gustora irakurtzen dittut Bergarako kontuak, interesantia izeten da.

Zaletasunen bat badaukazu? Bai, arrantzan egittia, batez be. Eta perretxiko sasoiaren perretxikotara jutia gustatzen jat.

Bergarako txokorik polittena? Gorla aldian oso politta da; Soledade aldian be bista polittak dare.

Ze aldatuko ziñuke herrixan? Ariznoa kalia penagarri dagola uste dot; ganorazko azera bat egin biharko lukie. Loterixia tokatzekotan, ze egingo ziñuke?

Pobriekin akordau. Karnizerixia eduki dogunian be zortzi bat familixari emoten gontsan okelia, Karitasen bittartez.

AINTZANE IRIZAR

NIRE BIDAIAHURA / Aintzane Mendizabal

PIRINIOAK / 2001eko abuztuan

Iaz, udan, Arkaitz mutil-lagunak eta biok egin genuen Pirinioetan zeharreko ibilbidea bizikletaz. Egia esan, nik ez nuen sekula pentsatuko horrelakorik egingo nuenik, hemen inguruan bakarrik ibiltzen nintzen-eta bizikletaz. Baina Aste Santutik udara arte gogor entrenatu eta nahikoa ondo prestatu nintzen.

Arkaitzen lagun batzuk ibilbide hori egindakoak ziren, eta eurek laga zizkiguten ibilbidearen mapa eta nondik norakoak.

Figueresera trenez joan ginen. Ibilbide osoa 948 kilometrokoa zen, Figueresen hasi eta Bergararainoko ibilbidea. Hamabi egun behar izan genituen Bergarara iristeko. Mendiko bizikletaz joan ginen, baina gurpil finekin.

Lehendabiziko eguna oso gogorra izan zen; izan ere, sekulako beroa egiten zuen Figueres inguruan. Bigarren eguna ere gogorra egin zitzaidan; Roques Blanques-eko mendatea pasatu genuen egun horretan. Lurrezko pistaz igo behar duzu, zazpi kilometroz, eta jaitsiera ere, 23 kilometro, pistaz egin behar da. Horixe izan zen menderik gogorrenetakoa. Tourmalet eta Bagargi ere oso gogorrak izan ziren. Bergarara heltzeaz, hamabigarren egunean, Gorla ere oso gogorra egin zitzaidan.

Egunean 80 bat kilometro egiten genuen. Goizero, jaiki eta bagenekien egun guztia geneukala bizikletaz ibiltzeko. Kontua zen ilundu baino lehen lotarako toki bat topatzea. Karpinean, aterpetxeetan eta gite d'etape izeneko aterpetxe antzerakoetan lo egiten genuen. Beste gauza oso garrantzitsu bat zen, dutxa on bat hartu, ondo afaldu eta ondo gosaltzea; izan ere, egun osoan ez genuen ganoraz jaten. Oso bidaia polita izan zen, gomendatzeko modukoa; entrenatuz gero, edozeinek egin dezake horrelako ibilbide bat.

AINTZANE IRIZAR



Arkaitz eta Aintzane, Roques Blanques mendate gainean.



“Figueresen hasi eta Bergararaino etorri ginen bizikletaz”

“Egunean, batez beste, 80 kilometro egiten genuen”

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



Matxiategi Elektragintza S.L.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.



ENEKO AZKARATE

Fernando eta Jabi Oregi entrenatzaileak, Edu Agirre taldeko ordezkarria eta jokalaria, osoko bilkuren aretoan zapatuan.

FUTBOLA

Txapeldunen kopa jaso zuen ohorezko gazte taldeak zapatuan

Fernando eta Jabi Oregiren taldeak Euskal Ligan jardungo du hurrengo denboraldian

EDU MENDIBIL

Ohorezko gazte taldeak 2-0 irabazi zion Martuteneri zapatuan, ligako azken partiduan. Ondoren, Juan Luis Larrea Federazioko presidentek txapeldunen kopa eman zion taldeari udaletxean.

Fernando eta Jabi Oregi anaiek zuzendutako taldeak denboraldi biribila egin du. Jokaturako 34 partiduetatik, 25 irabazi, sei berdindu eta hiru besterik ez dute galdu. Azkenean, bost punturen aldea atera diote bigarren gertatu den Irungo San Martzial tal-

deari. Mahoneroek 112 gol sartu dituzte eta gol gutxien jaso duen bigarren taldea izan da, 38 gol, hain zuzen. Julen Aranburu taldeko kapitaina izan da golegile nagusia: 36 gol egin ditu aurrelari gazteak. Julenek berak jaso zuen txapeldunen kopa Juan Luis Larrea Gipuzkoako Federazioko presidentearen eskutik.

Fernando Oregiren esanetan, "ia hasieratik liderrak izan gara, baina berdintasuna izan da nagusi. Oso talde indartsuen kontra jokatu behar izan dugu eta benetan meritu handia dauka jokalariek lortutakoa. Talde-lana oso garrantzitsua izan da lehen pos-

tuari eusteko eta kopa eskuratzeko. Ilusio ikaragarria egin digu liga irabazteak".

TALDEARI EUTSI

Esan bezala, datorren denboraldian, Euskal Ligan jardungo du Oregi anaiei taldeak. Fernando Oregiren hitzetan, "seguru asko, taldearen %50ari eutsiko diogu, eta, hasiera baten, behintzat, gure helburua mailari eustea izango da. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako taldeak izango gara lehian. Ea ondo moldatzen garen maila berrira. Ziurrenik, abuztuaren erdialdera hasiko gara entrenamendu saioekin".

Alebin eta kadete gimnasia taldeak txapeldun Eskolarteko Txapelketan

E.M.

Ariznoako alebin eta kadete mailako taldeek lehen postua eskuratu zuten Zarautzen jokaturako Eskolarteko Txapelketan. Banaka ere emaitza bikainak lortu zituzten herriko gimnastek.

Lehen postua eskuratu zuen infantil taldea Eider Carrasco, Lorea Albéniz, Amaia Markiegi, Sarai Ruiz eta Peregrina Nsue gimnastek osatu zuten. Kadete mailakoan, berriz, Maialen Toledo, Uxue Arregi, Iraitz Gastiain, Virginia Odriozola eta Maialen Legorburu aritu ziren.

Banaka, Eider Carrasco infantil mailan irabazi zuen eta kadete mailan Uxue Arregi izan zen txapelduna, Maialen Toledo laugarren sailkatu zen eta Iraitz Gastian zazpigarrena izan zen.



JABI ARTEAGA

Ariznoako gimnastak, Sonia Corredera entrenatzailearekin, Zarauzko kiroldegian.

Alebinetan, Oihane Agirre bigarren eta Saioa Ugarteburu laugarren sailkatu ziren.

Bestalde, Ipuruako taldearekin Euskadi ordezkatzuz, Leire

Lasa bigarrena izan zen Gazteen Txapelketan, Santanderren. Iraitz Arteagak, berriz, 2. postua eskuratu zuen Euskadiko Eskolarteko Txapelketan, Gasteizen.

Beti-Busti taldekoak bikain Gipuzkoako Txapelketan

E.M.

Beti-Busti taldekoek emaitza bikainak lortu zituzten zapatuan Bidasoa ibaian jokaturako ur-bizietako eslalom proban. Euskadiko eta Espainiako txapelketetarako sasoi betean daudela erakutsi zuten.


Junior mailan, Lierni Errastik brontzezko domina irabazi zuen Irunen, Bidasoa ibaian, jokaturako Gipuzkoako ur-bizietako eslalom txapelketan. Kadete mailan, berriz, Markel Agirrek urrezko domina eskuratu zuen eta Iraitz Artolak brontzezkoa eta senior mailan, azkenik, Eneko Iturrospe zazpigarren tokian sailkatu zen. Taldekako sailkapenean Beti-Busti piraguismo taldeak hirugarren postua lortu zuen Gipuzkoako Txapelketan. Iñaki Gallastegi taldeko ordezkararen esanetan, "oso pozik gaude lortutakoarekin. Taldeko piraguis-

tak gogor entrenatu dira eta emaitza onak lortzea pozgarria izaten da beti. Taldeak maila ona erakutsi zuen Irunen, eta ea bide beretik jarraitzen dugun".

Beti-Bustiko kideek ekainaren 20an Bidasoan bertan jokaturako den Euskadiko Txapelketan emaitza onak errepikatzea espero dute. Eta horren ondoren, Espainiako Txapelketan izango dira, uztailaren 8an, Sort-en.

PIRAGUISMO IKASTAROA

Bestalde, Debagoieneko Kirol Zerbitzuek, Euskadiko Piraguismo Federazioak eta Beti-Bustik antolatuta, piraguismoko abiarazle titulua lortzeko ikastaroa izango da Bergarako kultura etxean ekainaren 6tik 9ra bitartean. Kirol Zerbitzuko bazkideendako izenematea 115 euro izango da eta 120 euro gainerakoendako. Argibide gehiago eta izenematea Udaleko Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.



LUIS MURGA

Lierni Errastik brontzezko domina lortu zuen Gipuzkoako Txapelketan.

Udako kirol kanpainarako izenematea zabalik dago

E.M.

Udal Kirol Zerbitzuak kaleratu du dagoeneko udako kirol kanpainako eskaintza. Eta nobedade gisa, plaza kopurua gaintzen den jardueretan zozketa egingo dute izena ematen dutenen artean.

Urtero moduan, eskaintza zabalago izango dute umeek, gazteek eta helduek. Besteak beste, abentura kirola, aerobika, defentsa pertsonala, eskalada, igeriketa, multikirola, patinajea, pilota, piraguismoa edo tenisa praktikatzeko aukera egongo da. Ohikoa denez, bi txanda izango dira: lehena ekainaren 24tik uztailaren 5era eta bigarrena uztailaren 8tik 19ra. Izenematea zabalik dago dagoeneko udaletxean (argibideak 943 77 91 67 zenbakian).

Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko arduradunaren hitzetan,

"aurten, izena emateko sistema aldatu nahi izan dugu. Gertatzen da hainbat jardueretan plaza kopurua gaintu egiten dela eta izena lehenengo ematen zutenek zutela lehentasuna orain arte. Aurten, zozketa egingo dugu izena ematen dutenen artean, plaza kopurua gaintzen den jardueretarako. Lehen txandarako zozketa ekainaren 19an egingo dugu, kiroldegian, 12:15ean. Eta bigarren txandarako uztailaren 3an, toki eta ordu berean".

Iaz, 639 lagun ibili ziren udako kanpainako jardueretan. Arrakastatsuenak igeriketa (254 lagun), aerobika (183 lagun) eta tenisa (94 lagun) izan genituen.

IGERILEKUAK, EGUZKIA HARTZEKO

Agorrosingo Udal Igerilekuak zabalik egongo dira eguzkia hartu nahi dutenendako, asteleheneetik egubakoitzera, 10:00etatik 17:30era.

ELKARRIZKETA

JON LAZKANO/MENDIZALEA

"Albertoren azken zortzimilakoa izatea berezia izan da"

EDU MENDIBIL

Jon Belokirekin eta Juanjo San Sebastianekin batera, Alberto Iñurrategiren espediziokidea izan da Jon Lazkano bergarra Annapurnan. Iñurrategik bere hamalagarren zortzimilakoa egitea lortu du.

Iñurrategik talde-lanaren garrantzia azpimarratu du.

Bai, Annapurna soka asko ipintzeko mendia da, kanpamentuen arteko distantziak luzeak direlako. Guztira, 3.000 metro soka jarri ditugu eta horrek lan handia eskatzen du. Zorionez, gauzak ondo atera zaizkigu eta talde-lanak bere fruitua izan du.

Nola bizi izan zenituen Albertok gailurra zapaldu aurreko momentuak?

Ez geneukan argi Lafaillek eta Albertok gailurra egingo zutenik, hartu zuten bidea teknikoki oso zaila zelako. Annapurna ez da batere mendi atsegina, gutxitan igotzen dena. Asko arriskatu beharra dago e baina zailtasunak gainditzeko gauza izan ziren biak

eta oso pozgarria izan zen Albertok gailurrean zirela abisatu gintuenean. Hala ere, jaitsi arte nahiko urduri egon ginen, ahotsean egoera onean zeudela igarri arren.

Oinarrizko kanpamenduan egon zara denbora luzean. Zela-koa da egun bat han?

Gora eta behera ibiltzen ginen egunetan 05:00ak aldera jaikitzen ginen eta lan dezente izaten genuen trasteak eramaten. Tartean baziren, egun lasaiagoak: zortzietan jaiki, gosaldurik, berriketan egin, pixka bat irakurri, arropak garbitu eta horrelakoak egiten genituen. Annapurnako oinarrizko kanpamendua 4.100 metrotara dago eta oso eroso da beste batzuekin konparatuz, izotz gainean egon beharrean belarra dagoelako han.

Gainera, oso ondo konpondu ei zarete elkarrekin.

Bai, gure artean primerako giroa egon da eta Albertoren azken zortzimilakoa izatea ere berezia izan da guztiontzat.

Orain atseden hartzeko asmorik bai?

Teorian bai, baina Felix Iñurrategi fundazioaren proiektu



Jon Beloki, Jon Lazkano eta Alberto Iñurrategi, joan den egunean Loiuo aireportura iritsi zirenean.

batzuk aurrera eramateko Pakistanera joango naiz hamar bat egun barru. ETBrako grabazioekin ere jarraituko dugu. Udan

Naranjon izango gara eta Kenyara eta Tanzaniara ere joango gara, Monte Kenyan eta Kilimanjaron grabaketak egitera. Gero balite-

ke Albertorekin Himalaiara joatea, neguan zortzimilako bat egiteko kapritxoa dauka eta. Cho Oyura joango gara ziurrenik.

Bostehun jokalaritik gora dihardute Ipintzako futbol txapelketetan

E.M.

Hasi dira dagoeneko Ipintzako futbol txapelketak. Guztira, hainbat mailatan, 500 jokalarik baino gehiagok dihardute. Gizonezkoen Futbol-11 Txapelketak izan du partaidetza handiena, 22 talderekin.

Esan bezala, Futbol-11ko Txapelketan 22 talde ari dira, lau multzotan banatuta. Bihar, zapatua, 09:00etatik eguerdira bitartean partiduak izango dira Ipintzan eta astelehenean eta martitzenean, 19:00etatik aurrera, hainbat partidu jokatuko dira. Beteranoen Futbol-7ko Txapelketari dagokionez, zortzi talde izango dira lehian. Datorren egunean, ekainaren 6an, hiru partidu izango dira, 19:30etik aurrera.

HIRU MAILA EMAKUMEZKOETAN

Emakumezkoen partaidetzak ere gora egin du joan zen urteareki-



Uztailaren erdialdera arte izango dira partiduak Ipintzan.

ko: alebin mailan sei talde ari dira (ekainaren 7an, arratsaldean, beste jardunaldi bat jokatuko dute); kadete mailan lau talderen artean erabakiko da txapelketa (ekainaren 5ean, 19:00etan, Arlotek eta Mariaren Lagundiaren arte-

ko partidua izango da) eta, azkenik, senior mailan zortzi taldek eman dute izena. Eguaztenean, egunean eta egubakoitzean, arratsaldean, nesken ordua izango da Ipintzan. Antolatzaileak pozik dira lortutako partaidetzarekin.

PILOTA

Igor Gutiérrezek Bergara Hiria Txapelketako finalerdia jokatuko du martitzenean

Bergara Hiria Txapelketaren barruan, Igor Gutiérrez bergararrak eta Eguzkitzak Amarike-Bengoetxea bikotearen aurka finalerdietako partidua jokatuko dute martitzenean, hilaren 4an. Aurretik promes mailako finalerdia izango da, 19:30ean hasita: Irureta-Olaetxea eta Arraztoa-Lagos bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

FUTBITOA

A Ze Flaxa Kopako txapelketa, eta zapatu arratsaldean, Superkopako finala

A Ze Flaxa taldeak 4-3 irabazi zion Kopako finala Artusamak taldeari domekan. Bi taldeak aurrez aurre izango dira berriro zapatuan, 19:00etan, kiroldegian jokatuko duten Superkopako finalean. Artusamak taldea aurtengo bi finaletara iritsi da, ligako finala irabazi zuen eta Pazkoen aurretik, Bar Ugarteri irabazita.

PILOTA

Bergarako pilotariak 1-2 galdu zuten Aiaren aurka Herri Arteko Txapelketan

Bergarak 1-2 galdu zuen Aiaren aurka Herri Arteko Txapelketan. Kadete eta gazte mailan, hurrenez hurren, 16-22 eta 20-22 galdu zuten eta senior mailan 22-18 nagusitu ziren bergararrak. Gaur, egubakoitza, itzulerako partiduak jokatuko dituzte Aian, 21:00etan.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



JESUS GIL MASSA

Liburua hainbat argazkirekin jantzita dago; antzinakoak eta gaur egungoak. Esaterako, Zubietako ezaugarriak ere jasotzen ditu.

Jesus Gil Massa historialariak egin du eta Erdi Arotik XVIII.a arteko bilakaera jasotzen du

Bergararen hirigintza bilakaera, liburu baten

MONIKA BELASTEGI

Urbanismo y arquitectura civil en Bergara. Siglos XIII-XVIII izenburua du Jesus Gil Massaren lanak. Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute, 19:30ean, osoko bilkuren aretoan. Aipatu garaiko Bergarako arkitektura zibilaren gainean egindako lan osatuena da, Udalaren ustez.

Horixe da Udalak liburu argitaratzeko arrazoia: Gotiko, Errenazimendu eta Barroko garaietako Bergarako arkitektura zibilaren gainean egin den ikerketa eta azterketa lanik garrantzitsuenak, osatuena eta dokumentatuena izatea Gil Massarena.

Liburuak Gil Massaren doktoradutza lana du oinarrian. Tesia egiteko Bergarako hirigintza historikoa eta arkitektura zibilaren

bilakaera Erdi Arotik XVIII. mendera arte ikertu zituen. 1999an, Sobresaliente *cum laude* jaso zuen tesi horregatik.

Bergarako Udalak horren berri izanik, akordio batera heldu ziren 2000ko irailean Gil Massarekin, hainbat egokitzapen egin ondoren, gaur aurkeztuko duten liburuaren kaleratzeko. Salgai ere jarriko dute aurkezpen ekitaldian eta ondoren kultura etxean eta turismo bulegoan. Prezioa 20 euro izango da.

BERGARAREN HIRIGINTZA BILAKAERA

1.200 orrialdetan barrena, sakontasunez aztertzen du Gil Massak Bergarako hiribilduaren bilakaera urbanistikoa aipatutako garaietan. Horrekin batera, Bergarako etxe xumeak zein jauregi handiak eraikitzeke moduen

bilakaera eta eboluzio estilistikoa ere ikertu ditu. Gai horietan ikuspegi orokorrak eskaini ondoren, arlo eta garai bakoitzeko adibide zehatzen azterketari ere heltzen dio. Bestalde, aipatzekoa da lana osatzeko egileak egin duen artxibo lan sakona; horrekin lotuta, liburuaren amaieran dokumentuen indizea dago.

Hamalau ataletan dago banatuta liburuak, eta, besteak beste, gure herria Barrenkalea, Arte-kalea eta Goenkalea kaleek osatzen zuten garaian hasi, eta lehenengo errebalak eta gainerako kaleak zelan sortuz joan ziren kontatzen digu. Horrez gain, etxe xumeek izan zuten bilakaera historikoa ere azaltzen du, eta Arte-kalean edo Barrenkalean gaur egun ere dirauten hainbat etxeren datuak ematen ditu.

Felix Idigorasek, Pol-Pol argazki lehiaketako 1. saria

MONIKA BELASTEGI

Pol-Pol argazki taldeak antolatzen duen argazki lehiaketako emaitzak erabaki zituzten zapatuan. 178 argazki jaso dituzte, zuri-beltzean eta koloretan. Felix Idigorak bergararrak koloretako lehen saria jaso du.

Bergara Hiria XVIII. argazki lehiaketak baditu irabazleak. Joan den zapatuan erabaki zituzten argazki irabazleak zuri-beltzean koloretako modalitatean. Zuri-beltzean honako hauek: lehen saria Berangoko Javier Pedro Fernándezek jaso du *La arena* izeneko lanarekin; bigarrena Adolfo Vázquez erreteriarrek *Subida* lanarekin eta hirugarrena, Igor Etxabe zaldibiarrek *Andrea* izeneko argazkiarekin. Bestalde, herriko argazki onenaren saria Benito Canterok jaso du *Trikuarri* argazkiarekin.

Koloretako argazkien atalean ondorengo argazkilariak saritu

dituzte: lehenengo saria Bergarako Felix Idigorasek jaso du *Bodegon* lanarekin; bigarrena Adolfo Vázquez erreteriarrek *Paseo* lanarekin, eta hirugarrena, Zaldibiako Igor Etxabe argazkilariak *Zaldibiako txokoak* lanarekin. Bergarako argazki onenaren saria, berriz, Benito Canterorendako izan da.

ARGAZKIAK IKUSGAI KULTURA ETXEAN


Berrogeita zazpi lagunek hartu dute parte lehiaketan; 23k zuri-beltzean, eta 24k koloretan, eta horietatik guztietatik Bergarakoak hamar izan dira.

Aurkeztutako argazki kopuruari dagokionez, 178 izan dira: 86 zuri-beltzean eta 92 koloretan. Sari banaketa ekainaren 7an izango da, kultura etxean, eta erakusketa ere egingo dute. Erakusketan argazki sarituak eta lehiaketara aurkeztutako beste argazki batzuk egongo dira ikusgai; guztira 40. Dagoeneko zabalik dago erakusketa ekainaren 9ra arte, kultura etxean.



FELIX IDIGORAS

Goian, Felix Idigorasen *Bodegon* lanaren xehetasuna.



Literatura Lehiaketako sariak

Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketako sariak banatu zituzten zapatu eguerdian Zabalotegi aretoan. Lehiaketaren XVII. aldian 421 lagunek hartu dute parte, adinaren araberrako bost taldetan banatuta, eta epaimahaiaren iritziz, lanen mailak gora egin du aurreko aldiekin alderatuta. Talde bakoitzeko lehenengo hiru lagunek eta kasu batzuetan lauk jaso zuten saria. Ekitaldia alaitzeko, herriko ikastetxeetako umeek antzezlanak eta kantaldiak egin zituzten. /M.B.

KULTURAPILULAK

'Hau paraderoa' antzezlanak gaur Zabalotegi aretoan

Bergarako Udal Euskaltegiak antolatu du, 20. urteurrena ospatzeko, Elena Irureta, Eliaxabete Elizondo, Aitzpea Goenaga eta Loly Astoreka aktoreek, lau emakumeek, azken baten, bost lekutan bizi izango dituzten bost egoera kontatutako dizkigute: ezkontza agentzia baten, Marokoko aireportu bateko itxaron gela baten, ginekologoaren kontsultaren atarian, tanatorio baten eta, azkenik, Leidor antzokiko kamerinoetan. Antzezlanak gaur izango da. Zabalotegi aretoan, 22:30ean.



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkaria. 3. alia

HOBETZEKUAK

1. "Iñor be ez" esamoldia hiru berbak osatzen dabe, eta horretatik lehenengua da deklinatu biharrekua



- Ez da iñor bez etorri **EZ**
- Ez da iñor be etorri **BAI**
- Ez dago ezebezetake denporarik **EZ**
- Ez dago ezertarako be denporarik **BAI**
- Ez naiz iñor bezekin joan **EZ**
- Ez naiz iñorekin be joan **BAI**

2. Ondorengo esaldixok lagungarriak izan leizke jolasian egiten dogunean:

- Zu bai mutilla/neskia!
- Portau zara!
- Hire modukorik etxak/n!
- Zelako aukeria!
- Hau dok/n mahatsa!
- Hau bai aukeria!
- Mangauta nago!
- Jota nago!
- Pot egindda nago!



IEPA LAGUNOK!

Hemen gatoz berriro. Portau ziñaten aurreko aliarekin. Berrehundik gora izan ziñaten zuen erantzun-orrixak bialdu ziñuenak. Ia oraingo aleko ariketak be gustatzen jatzuen eta askok parte hartzen dozuen.

Oraingo ale hau izango da opor aurreko azkeneko alia, baiña oporren ondoren hemen izango gara berri zuekin. Bittartian ondo-ondo pasau!

Eta, betiko moduan, akordau eskoletan banatuko dotsuela ariketen erantzunak jarri eta sari polit batzuk lortzeko orrixak. Horrek orrixok eskolan bertan entregatu bihar ditzuzue.

IGARKIZUNAK

Beti egia dio
Nahiz ez hitzik egin
Dena ikus dezake
Baina ezer oroitu ezin

Begiak uzten ba dizkiozu
Oso-oso urrunera iritsiko da;
Inoren begirik gabe
Itsu geratuko da

(Mintzo naiz isilik... Juan Kruz Igerabide. Elkarlanean)

ERANTZUNAK: 1. ispilua 2. katalogoa, Igerabista

KOMIKIXA



Amama kontauko dozu aittittakin bla bla bla...

Ni ez nok ezebezekin* akordatzen, mutill!

Ui! Egixa izango dok bai! dana ahaztuko jakuan! Ezebezekin...!??

*Zuzena: ezekin be

ATSOTITZ EZKUTUA

Asmatuko ziñuke ze atsotitz dagon beheko zenbaki ilara horren atzian ezkutauta?

Horretarako laguntza haundixa emongo dotsu, lehenengo, hemen aldameneko berbak asmatziak, zenbaki bakoitza beti letra berari dagokixo eta.

Esate baterako, laguntza txikitxo bat emonaz, esango dotsugu 1 zenbakixa H letrari dagokixola beti, bai atsotitzean eta bai azpiko berbetan. 2 zenbakixa beste letra bat izango da, eta hola danak. Ia ba, aurrera!

Pelota txiki-txikixak dira, gehixenak kristalezkuak eta kolore askotakuak.

$\overline{10}$ $\overline{2}$ $\overline{8}$ $\overline{11}$ $\overline{10}$ $\overline{2}$ $\overline{10}$

Txuntxurrunka egitteko bihar izaten dogu.

$\overline{1}$ $\overline{2}$ $\overline{4}$ $\overline{4}$ $\overline{11}$ $\overline{13}$ $\overline{2}$

Eskolan jolasian egitteko daukagun tartia.

$\overline{2}$ $\overline{6}$ $\overline{3}$ $\overline{5}$ $\overline{9}$ $\overline{5}$ $\overline{8}$ $\overline{2}$ $\overline{12}$ $\overline{9}$ $\overline{11}$ $\overline{13}$ $\overline{2}$

Pelotan, futbolian eta hainbat kiroletan atzeko aldian jokutzen dabena.

$\overline{2}$ $\overline{6}$ $\overline{7}$ $\overline{5}$ $\overline{12}$ $\overline{2}$ $\overline{4}$ $\overline{11}$ $\overline{13}$ $\overline{2}$

Kiroletan edade-kategorietako bat.

$\overline{10}$ $\overline{2}$ $\overline{9}$ $\overline{5}$ $\overline{6}$ $\overline{11}$ $\overline{2}$

ATSOTITZA:

$\overline{1}$ $\overline{2}$ $\overline{3}$ $\overline{2}$ $\overline{4}$ $\overline{4}$ $\overline{5}$ $\overline{6}$ $\overline{7}$ $\overline{5}$ $\overline{8}$ $\overline{9}$ $\overline{2}$ $\overline{8}$ $\overline{2}$ $\overline{10}$

$\overline{2}$ $\overline{9}$ $\overline{11}$ $\overline{3}$ $\overline{10}$ $\overline{11}$ $\overline{9}$ $\overline{5}$ $\overline{6}$ $\overline{7}$ $\overline{5}$ $\overline{8}$ $\overline{12}$ $\overline{2}$ $\overline{8}$ $\overline{2}$ $\overline{10}$

MAGIA JOKUA

PAPEL PUSKETAK

15 x 5 cm inguruko papel zati bat hartu eta bi ebagi egin, irudixan ikusten dozun moduan. Zatixak papel zati fiñenetik txintxiliz, puntetatik lotuta egongo dira.


Eutsi A-tik esku batekin eta C-tik bestiarekin, eta tira egin hiru zatixak banatzeko bezela. Ezin da baiña! Papela punto baten edo bestian apurtzen da, baiña ez bixetan.

Lortzeko, tranpa bat egin zeinke: B zatixari ezpaineekin eutsi.

Dana dala, badago beste modu bat interesgarrigagua dana: zelo zati bat edota klip bat erabilitta, txanpon bat jarri B zatixaren goiko aldian. Hala B zatixaren pisua haunditu egingo da eta papela bi puntuetatik aldi berian apurtuko da.



1.



2.

ZEIÑEK DIÑO?

Lotuko dittuzu ondorengo esamoldiak azpiko irudixekin? la asmatzen dozun; animo!

- A. Mangauta nago!
- B. Kontxo, kontxo!
- C. A ze aukeria!
- D. Emoten dozu? Emoten dot!
- E. Portau zara!
- F. Et, et, et, kontuz!




1

Pellori esku-eskura etorri jako pelotia, eta dejada bat egittera doia.




2

Nereari etxian ahaztu jako patinäk. Maitek beriak laga dotsa.



3

Aitziberrek oso lasterketa ona egitten dihardu.



4

Ikerrek desafixua bota dotsa Arrateri, baiña neskia ez da nekatzen.



5

Maitek eta Eñautek hosto-borrokan dihardue, onduan atso-aguriak dauzkela konturatu barik.




6

Joneren magia-jokuak ustekabian harrapau dau Joxe.

1 _ 2 _ 3 _ 4 _ 5 _ 6 _

INKESTIA



Kirola egittia gustatzen jatzu? Ze kirol egitten dozu?



Nekane Ezkurra

Bai. Futbolian jokatzia gustatzen jat. Ikastolan, neskak mutilen kontra ibiltzen gara batzuetan. Mutillak irabazten doskue normalian, korrika asko egitten dabelako.



Mikel Aristi

Kirola egittia asko gustatzen jat. Monopatiñarekin eta bizikletiarekin ibiltzen naiz, uda partian, batez be. Bizikletiarekin Goiko Estaziñora juaten gara askotan.



Maitane Mujika

Kiroldegi aurrian bizi naiz, eta saskibaloian jokatzen dot, gurasuekin batzuetan. Bizikletan ibiltzen be ikasi neban sei urterekin, eta udan asko gustatzen jat bizikletan ibiltzia.



Markel Elkoroiribe


Danetik egittia gustatzen jat, baiña gehixen futbola. Errekreo orduan eta eskola orduetatik kanpo be futbolian ibiltzen gara beti. Patinietian, pelotan edo antxintxika be bai.

NERE GOMENDIXUA



MIKEL ARISTI
Aranzadi Ikastola

HERKULES
Disney
Aizkorri argitaletxia
50 orrialde



Irakurri dittuten ipuin guztietatik **Herkules** izan da gehixen gustau izan jatena. Marrazki bizidunetako pelikulan kontatzen dan istorio berdina da. **Herkules** asko gustatzen jat, oso ausarta eta indartsua dalako, eta baita lagun asko dauzkalako be. **Abentura asko** gertatzen jako eta liburu entretenigarria da, erraz irakurtzekua, **marrazki asko** dittualako. Gustora irakurri neban.



ELEFANTIA, ERBIXA ETA BI SAGUAK

Erbixa, egun hartan, munduko animalixarik zoriontsuena zan. Bere ohian zeguan etzanda, lo, amets ederrak egitten: “zelako bedarra, zelako azenarixo goxuak!...” eta bapatian... kata-kraus! Teillatua behera etorri jakon! Kanpora irten eta... Elefante bat etxiaren gaiñian jarritta!

– “Jaiki hortik segittuan mutur luze hori. Barrika baten antzekua zara, hipopotamua zure aldiñan euli bat da”.

(Elefante kankallua haserretu egin zan. Jakiña! Zein ez!)

– “Teman jarraitzen badozu, zure gaiñian jarriko naiz”.

Diskusiñuan jarraitu zeben; elefantiak marruka eta erbixak hortzak

erakusten. Ondoko arbolan mozolo bat zeguan, lo egin nahixan baiña zarata harekin ezin.

– “Zer? Ez dozue bukatzeko asmorik ala? Egin duelu bat eta kitto!”

– “Duelu bat? Burruka! Bai, bale!”. Elefantiari mozoluaren proposamena asko gustau jakon, indartsuagua zalako. Baiña erbixa be ez zan billurtu. “Ni be gertu!”

Elefantiak egin zeban lehenengo erasua. Aurreko hankak jaso eta...plafff! lurra dardarka jarri zeban, baiña ez zeban erbixa azpixon harrapatzerik lortu.


Bapatian erbixak, ttaka, sagu txiki-txiki bat jarri zotsan sudurrian elefantiari. Elefantiak, billurtuta, burua jiratu

zeban. Tigriak eta errinozeruak ez dabe elefantia billurtuko, baiña sagutxo batek paretan gora jarri leike.

Ttaka! berriro. Beste sagu bat jaurti zotsan eta animalitxua, txiuu..., elefantiaren belarrixan sartu zan. Sekulakua! Elefantia noraezian abixau zan, zoratuta, tipirri-taparra, baldar..... Uluka zihorian, ura irakitten bota balotse bezela.

Haura ikusitta sabanako animalixa guztiak erbixa zoriondu zeben, baitta mozoluak be: “Ondo egiña mutiko!”

Izan be danoi gustatzen jaku ikustia txikixenak, batzutan, handixaguak mendian hartu ahal dittuela.



E, TXO!

GUREGAIK/ UDALEKUAK

LEONARDO DA VINCI BEKA

Confebask Euskal Enpresaburuen Konfederakundeak Leonardo Da Vinci dirulaguntzetarako deialdia egin du. Deialdi horren helburua da unibertsitateko ikasleei dirulaguntzak ematea Europako hainbat unibertsitatetan hiru edo sei hilabeteko egonaldiak egiteko. Informazio gehiago honako webgunean izango duzue: www.confebask.es.

Gaztetxean liburutegia osatzen ari dira

AINZANE IRIZAR

Taberna, kontzertuak, hitzaldiak, *Astindu* aldizkaria eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Bergarako Gazte Asanbladak. Orain, liburutegia osatzen ari dira herriko gazteen laguntzarekin.

Liburutegi zerbitzua eskaini nahi dute Bergarako gaztetxean. Horretarako, herriko gazteei

deialdia egin nahi diete Gazte Asanbladakoek, etxean *alferrik* dituzten liburuak gaztetxera eraman ditzaten. Horrela, behar bada norberak irakurtzen ez dituen edo dagoeneko irakurri dituen liburuak beste gazte batzuen interesekoak izan daitezke, baita beste batzuenak norberaren interesekoak ere.

Herriko gazteei deialdia egiteaz gain, beste saiakera batzuk ere egin dituzte: hainbat argitaletxek atzera lagatako liburu

batzuk gaztetxearen esku laga dituzte, esate baterako.

Batutako liburu guztiak Kartzela Zaharreko ziega baten batu dituzte.

Oraingoan, ez dute liburu askorik batu, baina badago gaztetxean nahi adina libururendako tokia. Hortaz, animatu eta ea gazte guztion artean liburutegi txukuna osatzen dugun. Nor bere liburuak herriko gazteen eskura laga nahi dituenak gaztetxera eraman besterik ez du egin behar.

KONTZERTUAK ASTEBURUAN

Gaur, egubakoitza, 22:30etik aurrera, *hard-core* kontzertua izango dugu gaztetxean. Madrilgo Zinc, Zarauzko Erantzun eta Oreretako Cobory arituko zaizkigu gaztetxean.

Bihar, zapatua, 22:30etik aurrera baita ere, beste kontzertu bat izango dugu gaztetxean. Bilboko Suspenders eta Italiako Eskontrol eta Attiaca Briss taldeen emanaldia ikusi eta entzuteko aukera izango dugu.

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIAREN 20. URTEURRENA

Maiatzaren 31n:
HAU PARADEROA!
ANTZEZLANA
Zabalotegiko aretoan, 22:30ean
KUTXAren laguntzarekin



Ekainaren 14an:
MONGOLIA
JR AGIRRE 'MARRON'EN DIAPOSITIBAK
Kultura etxean, 19:00etan



Ekainaren 21ean:
AFARI-JAIA
Euskaltegiko frontoian



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

20 urte zuekin,
egunez egun, euskaraz.

ZAHARREN ETXETIK

Aurten 87 urte egingo dituzten bergararrei omenaldia egin zieten aurreko domekan

EDU MENDIBIL

Aurten 87 urte egingo dituzten bergararrei omenaldia egin zieten domekan San Joxepen. Guztiak egon ez baziren ere, 46 izan dira omendutakoak.

Eguerdian Santa Marinar meza entzun eta gero, jende ugari batu zen domekan San Joxepen. Omendutakoez gain, euren senitartekoak, San Joxepeko Zuzendaritzako kideak eta Udaleko ordezkariak egon ziren, Victoriano Gallastegi alkatea eta Kontxi Irizar Ongizate Saileko zinegotzia tartean. Alkateak omendutakoak zoriondu zituen eta, era berean, San Joxepeko erretiratuek egiten duten lana goraiatu zuen eta bide beretik jarraitzeko, Victoriano Gallastegik txeki bat eman zion Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidenteari. Ondoren dantzarien eta San Joxepeko Abesbatzaren saioak izan ziren eta omendutakoek oroigarri bana jaso zuten. Horren guztiaren ondoren, lancha egon zen.

Aurten, esan bezala, 46 lagun omendu dituzte 87 urte betetzearen. Honako hauek dituzue: Modesta Agirre, Jesus Aizpiri, Esteban Aldekoa, Maria Pilar Aranburu, Filomena Askasibar, Maria Astigarraga, Mari Karmen Azpeitia, Karmen Azpitarte, Antonia Beistegi, Valentin Belio, Agapito Blázquez, Abundio Colinas, Benita Egia, Ignacio Elkoroiribe, Eduardo Gabilondo, Patricia Gabilondo, Martin Gantxegi, Candida Garitano, Felix Garmendia, Rufina Goiti, Julian Gorrotxategi, Rosario Inurritegi, Maria Paz Ibáñez, Maria Isabel Irañeta, Antonina Irala, Petra Irazola, Pedro Irizar, Pedro Iturrino, Pilar Madariaga, Ignacio Mendizabal, Vicente Migura, Martina Muxika, Pastora Murua, Angel Olabarria, Eugenia Ormazabal, Paula Ormazabal, Maria Otaegi, Julia Pardina, Mercedes Peñalba, Martina Pildain, Vicenta San Miguel, Luisa Torres, Pilar Zabala, Isabel

Zabala, Maria Paz Zubialde eta Jesusa Zubikarai.

Markos Labaienek eskaini zien bertsoetako batek honela zioen: *Egun polit hau ospatzen gaude/seigarrengoa aurrean/gure guraso maitagarriei/hainbeste gaude zorrean/ egun polit bat aske nitzeko/guk borondate onean/horregatik gaude guztiok/zoriondu beharrean.*

MENDI IRTEERA ETA MENDIZALEEN TOPAKETA HURRENGO ASTEAN

San Joxepetik iragarritako mendi irteera programarekin jarraituz, datorren eguaztenean, ekainaren 5ean, Errezilera eta Erniora joango dira erretiratuak. Irteera goizeko zortzietan izango da; autobus geltokitik irtengo dira.


Eguenean, hilaren 6an, berriz, Irungo, Errenteriako, Legazpiko eta Bergarako mendizaleen topaketa izango da Altxasu elkartearen. Goizeko hamaiketean batuko dira Gorlan eta bazkaria 14:30ean izango dute. Gero, Iñaki Quintanillarekin dantzaldia egongo da. Argibideak 943 76 30 09 telefonoan.



Zaharrei eskainitako omenaldian, aurten, 46 izan ziren omendutakoak. Guztiak oroigarri bana jaso zuten 87 urte egitearren.



Victoriano Gallastegi alkatea eta Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidentea domekako ekitaldian.



Markos Labaienek bertsoak eskaini zizkien omendutakoari.



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean

•
Pintura industrial

•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

**JOXAN
ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zer egin ohi zuten sasoi baten Zabalatarren errebotikan: errellenoak, tertuliak ala bertso saioak?

GALDEDEBALDE

1. Bere 50. urteurrena ospatzeko Pol-Polek Himalaiara espedizioa egin zuen. Nora?

- A/ Dhaulagirira.
- B/ Cho Oyura.
- C/ Annapurnara.

2. Zein da Jesus Gil Massa historialariak aurkeztu berri duen liburuaren izenburua?

- A/ Lehen euskal herria.
- B/ Urbanismo y arquitectura civil en Bergara.
- C/ Txondorak, karobiak eta elurzuloak.

3. Txapeldun izateaz gain, ohorezko gazte futbol taldeak gol asko sartu ditu. Zenbat?

- A/ 98.
- B/ 163.
- C/ 112.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NORA BLANCOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Nora! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Erret Mintegian / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Sos arroza

Kilo bateko paketea.

1,02 €

170 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTXIBOA

BERGARAKO ZUHAITZAK

Gurbitza

Arbutus unedo

MAITANE ARIZABAETA

Hamabi metro har ditzakeen hosto iraunkorreko zuhaitz edo zuhaixka. Enborraren azala arre gorrixka da eta ezkatetan askatzen da. Ertz zerratuak eta lantza formako hostoak ditu, berde biziak eta pixka bat lustredunak gainaldean; azpialdean, zurbilagoak.

Loreak panikula terminal zintzilikarietan biltzen dira eta aurreko urteko fruituak heltzen diren une berean loratzen dira. Fruitua udazkenean heltzen da eta laranja kolorekoa da; azal zimurto eta zapore goxoko baiak dira.

Erabilera askotariko zuhaixka dugu gurbitza. Alde batetik, bere fruituak jangarriak dira, baina asko janez gero, burukomina sor dezakete, baita mozkortu ere, ondo heltzen direnean alkohola dute eta. Gurbitzaren fruituetatik kalitate oneko pattarra ateratzen da.

Bestetik, hostoek eta azalak taninoak dituzte eta larrua ontzeko erabili izan dituzte, baita lehorgarri gisa ere, beherakoari aurre egiteko.

Eta, azkenik, egurra erregai ona da eta bere sustraietatik ikatz ederra ateratzen da.

“Gurbitzaren fruituetatik kalitate oneko pattarra ateratzen da”

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak


Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



BERGARA
Malen Gallastegi
Maiatzaren 31n 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Irati Lazpiur
Ekainaren 2an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitzol Elkoroberezibar
Ekainaren 4an urtebete.
Urte askotarako!
Aitita, amama eta Eli.



ELGETA
Ibon Unzetabarrenetxea
Zorionak!
Etxekoak.



BERGARA
Jone Agirrezabal
Maiatzaren 31n 8 urte.
Zorionak eta egun ona
izan dezazula! Etxekoak.



BERGARA
Alazne Soto
Ekainaren 4an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Alex Arteaga
Maiatzaren 25ean 5 urte.
Zorionak! Etxekoak;
batez ere, Maitane.



BERGARA
Leire Moñux
Ekainaren 9an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Iker Ruiz de Larramendi
Ekainaren 6an 6. Zorionak!
Olatz eta familiakoak.



BERGARA
Alejandro
Ekainaren 3an 4 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
Sevillako aitona-amonak.



BERGARA
Paula Arantzabal
Maiatzaren 26an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Agustín Manso
Ekainaren 4an 39 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
anai-arrebak.



BERGARA
Ander Plazaola
Maiatzaren 30ean
13 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



ANTZUOLA
Onintza Olano
Maiatzaren 26an 2 urte.
Zorionak pitxin! Etxekoak;
batez ere amama Carmen.



BERGARA
Lorea Franco
Ekainaren 7an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Asier.



BERGARA
Ibon Gomez
Ekainaren 2an 3 urte.
Urte askotarako!
Josu, Mariñe eta Alatz.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAREN agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxungo

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

H GUREN
A INTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialak

Errekalde auzoa: 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

CLINICA DENTAL
BERGARA

Odontologia helduendako eta umeendako
Hortz-protesia
Estetika eta zuritzea
Inplanteak eta kirurgia
Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontzia

Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previa, Aegón, Guía Azul de Guipúzcoa eta Dentyred.

Bidekurutzeta 6, 2. pisua. Bergara. 943 76 05 77

DESKONTU BEREZIAK
zaharren etxeak, ezgaiñuak eta enpresak

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19
BALDANA Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behea. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PDDOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAKO KABINETEA** (Azferketa psikologikoa). 943 76 59 39
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Kruz Gallastegi 2, behea. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 31 / 115. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Eskola Kiroleko Kontseilua eratu dute eskolak, gurasoek eta Udalak

AINTZANE IRIZAR

Pausoka Gurasoen Elkarteko hainbat kidek, herri ikastetxe-ko irakasleek eta Udaleko kirol arduradunek osatu dute Eskola Kiroleko Kontseilua deitu diotena. Euren helburua da eskola orduetatik kanpo neska-mutikoek egiten duten kirola bultzatu eta antolatzea.

Eskola kirolean herri bakoitzak bere antolaketa sistema propioa dauka. Antzuolaren kasuan, beti funtzionatu izan du antzera samar: gurasoak izan dira beti eskola orduetatik kanporako kirol jarduera horien oinarria. Eurak dira herriko neska-mutikoak entrenatzeaz arduratzen direnak, astero Bergaran jokatzen dituzten partiduetara eramaten dituztenak eta, oro har, ardura handien hartzen dutenak. Bestalde, Herri Ikastetxe Kirol Heziketako arduradun Jose Angel Amasorrainen laguntza izan dute beti.

Antzuolako Udalean duela gutxira arte kirol teknikaririk egon ez denez, eskola kiroleko antolaketaren zati handi bat herri ikastetxeak hartu izan du bere



Entrenamendu saio gehientsuenak eskolako jolaslekuan egiten dituzte.

JOSE ANGEL AMASORRAIN

gain, eta ez Udalak, beste hainbat herritan moduan.

Orain, baina, hiru partaide izango ditu, esan bezala, sortu berri duten kontseiluak: Udale-

ko kirol teknikaria, gurasoak eta koordinatzaile lanak egingo dituen Jose Angel Amasorrain ikastetxe-ko irakaslea. Funtsean, dena dela, berdin funtzionatuko

du. Kontua da Udalak hainbat baliabide jarriko dizkiela eskura neska-mutiko, entrenatzaile eta gurasoei. Hasiera baten, gurasoek jarraituko dute entrenatzaile.


HERRITARRENHITZA / Joseba Lezeta • Kazetaria

Oinak lurrean

Oinak izarretan saioaren programa berezia eskaini zuen Euskal Telebistako lehen kateak joan zen asteko zapatuan, maiatzaren 25ean. Alberto Inurrategi, Jon Beloki, Jon Lazkano eta Juanjo San Sebastian aritu ziren hizketan Asier Aranguren kazetariarekin Annapurnako igoeraz. Saio berezi hori ia bukatzeaz zegoela Inurrategirekin tontorrera igo zen Lafaille mendizale frantziarrak badaezpada eramanean zuten injekzioaz galdetu zion Arangurenekin Inurrategiri. Mendizale atxabaltarrak egoera

larrian hartu beharrezko "txutea" aipatu zuen. Berak inoiz ez omen du horrelakorik eramane orain arte, baina aurrerantzean eramateko asmoa azaldu zuen. Hil edo biziko egoeran, bizirik jarraitzeko bidea izan daiteke era horretako injekzioa.

Dopinga etorri zitzaidan burura. "Txute" hori hartuz gero, positiboa izango litzateke ala ez? Kirolari bezala bai,



"Oraingo mendizaleak mendian egindako lanetik bizi dira"

mentsatu nuen nire artean. Pertsona bezala, bizirik segitzeko lagungarria bada, hartzeko gomendatuko nioke edozeini. Lafaille tontorretik beharagoan egon omen zen hartzeko zorian. Baina norbaitek hartuko al du era horretako laguntza bat igotzeko? Nik ez

nuke ezetzik esango; are gehiago, himalaismoak hartu duen bidea ikusirik: ea nork

zortzimilako guztiak egin, ea bide zailena non aurkitu... Kirol honek, elite mailan gutxienez, erromantizismoa galdu du, nahiz eta ikusgarritasuna irabazi. Tximist espedizioan joan ziren mendizaleak baino askoz hobeto prestatuta daude egungo mendizale hauek. Baina haien helburu bakarra tontorrera igotzea zen. Oraingo hauek, aldiz, mendian egiten duten lanetik bizi dira, eta beste gauza batzuk pasatuko zaizkie burutik erabakiak hartzeko orduan. Izarretan baino gehiago, lurrean behar dira oinak.

LABUR

Urkulutik ura ekartzeko lanekin hasi berri dira

Astelehenean hasi ziren Urkulutik Antzuolara ura ekartzeko lanekin. Ibarreko gainerako herrietan Urkuluko ura hartzen dute herritarrek; lan horiekin bukatzen dutenean, antzuolarrek ere Aretxabaletako urtegiko ura hartuko dute etxeetan.

Egingo duten sarearen bitartez, herriko ur biltegirira, Aitzagako biltegirira, iritsiko da ura, eta handik banatuko da Antzuolako etxe guztietara. Lau tokitan hasi dira lanekin dagoeneko.

Elay lantegian lapurretan egin zuten asteburuan

Zapatutik domekarako gauetan, lapurrak sartu ziren Elayk Lizarragako hiribidean duen lantegian. Lantegira sartu baino lehen, alarmak apurto eta telefono-linea moztu zuten.

Lantegiko arduradunek KONTUOLARI adierazi diotenez, badirudi diru bila joan zirela, baina lantegian ez dute dirurik edukitzen.

Bi hilabeteren barruan, lapurreta bat baino gehiago gertatu da herrian; duela hilabete, esate baterako, Itzar liburu dendan egin zuten.

Zabor edukiontziaik husteko, arazoak izaten dituzte

Duela hilabete batzuk, Debagoienerako Mankomunitateak hartu zuen herriko zabor edukiontzien ardura. Zaborra jasotzeko egunak ere aldatu zituzten: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan jasotzen dituzte zaborrak Antzuolan.

Beheko auzoan arazoak izan ohi dituzte zabor biltzaileek. Izan ere, alboan autoren bat badago, ezin izaten dute edukiontzia hustu. Hortaz, edukiontzia ondoan autotik ez aparkatzea eskatzen dute Udaleko arduradunek.

ELKARRIZKETA

JOSE MARI ITURBE/BAKE KONFERENTZIAREN ALDEKO TALDEKO KIDEA

“Elkarrik ez dauka bakearen giltza, baina ahalegina egiten dihardu”

A.I.

Bihar, zapatua, kale bilkura isila deitu du Bake Konferentziaren aldeko Antzuolako taldeak, arratsaldeko zazpitan. Talde horretako kide Jose Mari Iturberekin egon gara, Bake Konferentziaz berba egiteko.

Zapatuan, kale bilkura egingo duzue. Zein helbururekin?

Bake Konferentziaren mezu berberarekin, alde batetik, konferentzia hori bultzatzeko. Bestetik, Batasunaren ilegalizazioaren aurka azaldu nahi dugu.

Zela doa Bake Konferentzia?

Elkarrik balorazio positiboa egiten du. Gainera, nik uste dut baikorrak izan behar gara; eze-tza oso merkea da. Nik uste dut azkenean lortuko dugula bakea, ez dakit nola eta noiz, baina lortuko dugu. Elkarrik ez dauka bakearen giltza, ez dauka egoera honi konponbidea emateko giltza. Baina ahalegin bat egiten ari da, behinik behin.

Hasiera baten, martxoan bukatzekoa zen Bake Konferentzia, baina luzatzea pentsatu zuten. Zergatik?

Lehenengo, martxotik ekainera atzeratu zen, PSE-EEK horrelaxe eskatuta, euren kongresua zela-eta. Horrelako prozesu baten oinarria da denok parte hartzea, bestela konponbiderik lortzea oso gaitza ikusten da. Orain, prozesua berez bukatzeaz dago, baina Batasunaren ilegalizazioaren kontu hori dela-eta, berriro urri-arte luzatzea erabaki dute. **San Isidroko azokan mahai informatiboa jarri zuten. Zelako erantzuna izan zuten?**

Jendea ibili zen eta atxikimendu batzuk jaso genituen. Baina, egia esan, beti antzerako jendea hurbiltzen da. Dena dela, Bake Konferentzia hasi aurretik, ehunetik gora atxikimendu eta ekarpen lortu genituen herrian.



AINTZANE IRIZAR

“Ilegalizazioaren aurka eta Bake Konferentziaren alde egingo dugu kale bilkura”

Berdintasuna eta denon partehartzea ei dira bakearen oinarriak. Zer egin dezake edozein herritarrek?

Luzera begirako helburuak izan behar ditugu. Agintzen duenak errepresio gogorra erakusten du. Botoa duenak agintzen du;

“Bake Konferentzia hasi aurretik, ehunetik gora atxikimendu lortu genuen herrian”

horrek ez du esan nahi besteen eskubideak zapaltzeko eskubidea duenik. Pentsatzen jarriko bagina nik egiten dudanak zer nolako eragina daukan bestearengan, gauzak aldatuko lirateke. Bestearen larruan sartzeak asko laguntzen du.



Eskolako kirolariak bikain ibili dira

Maiatzaren 16an jokatu zituzten eskola kiroleko finalak Bergaran. Lau final irabazi zituzten antzuolarrek. Benjaminek saskibaloiko eta futboleko finalak irabazi zituzten. Alebinek, berriz, bai neskek eta bai mutilek, saskibaloiko txapelketa irabazi zuten. Bestetik, gimnasia erritmikoan ere emaitza onak izan dituzte antzuolarrek: kadeteak Gipuzkoako txapeldunak izan dira taldeka eta alebinak bigarren geratu ziren; Uxue Arregi kadetea, azkenik, banakako txapelduna izan zen./A.I.

KIROLA

Kadete eta gazteek ere bukatu dute futbol denboraldia

Joan zen asteburuan jokatu zituzten kadete eta gazte mailetako futbol taldeek denboraldiko azken partidua. Kaskar samar amaitu dute denboraldia, biek galdu egin zuten-eta.

Kadeteek 12-3 galdu zuten Beraun taldearen aurka. Hala ere, oro har, nahiko denboraldi ona egin dute. Igoera fasea jokatu dute, nahiz eta azkenean zortzigarren postuan sailkatu diren, 11 punturekin, liderrak baino 33 gutxiagorekin.

Gazteek ere galdu egin zuten azkeneko partidua, 1-2, Ikasberri taldearen aurka. Gazteek ez dute hain denboraldi ona egin, eta euren taldeko azkeneko tokian bukatu dute aurtengo denboraldia, 17 punturekin; Amaiak Bat liderrak 90 puntu ditu.

Zumaiatik Getariara oinez joateko irteera antolatu du Arrolak

Gaztetxoendako antolatu dute, eta ekainaren 9an izango da. 09:00etan irtengo dira plazatik, eta ibilbidearen ostean, hondartzara joango dira. Ekainaren 4an, martitzenean, 19:00etatik 20:00etara eman behar da izena.

Bizikleta probak antolatu ditu Peña Aiastuik ekainerako

Ekainaren 8an, zapatuan, 12:00etan, Iralara igoera egingo dute. 16:00etan, berriz, ginkana jokoak izango dituzte Zurrategin. Ekainaren 15ean, Uzarragarako igoera jokatuko dute; 22an, ginkana jokoak egingo dituzte, eta 30ean, San Martzialerako igoera.

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131 BERGARA 609 150 164

Tomas Gezalaza

Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaza

Zoruen kutxilatua eta barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko maiatzaren 31 / 100. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

GOIBEKOKALEk ehun zenbaki eta bixar, Euskalkixan Eguna

OXEL EROSTARBE

Gaur GOIBEKOKALEk 100 zenbaki beteko dittuala eta, ekitaldi ugari antolatu ditu Goibeko Kultura Elkartiak bixarko. Egun osuan, honetan zazpi urtiotan etaratako 400 erretratu ikusteko aukeria egongo da Espaloian jarriko daben erakusketan.

Egun haundixa izango da bixar Elgetan. Izan be, Goibeko Kultura Elkartiak eta Badihardugu Elkartiak lankidetzan, ekitaldi ugari antolatu dittue bixarko.

09:30etik aurrera, euskalkixa lantzen diharduen Badihardugu Elkartiaren batzarra izango da liburutegixan.

11:00etan, berbaldi-eztabaida irekixa izango da. Euskalkixaren gainian interesa dauken danei, bertara juateko gonbitia egin nahi dotse honetatik lerruetatik bi elkartiek. Bertan lau ponentzia aurkeztuko dittue: *Hezkuntzia eta euskalkixa; Hedabidiak eta euskalkixa; Administrazioa eta euskalkixa*; eta, bukatzeko, *Berbeta berua*.

13:15ian, berriz, Koldo Zuazok idatzi daben *Deba ibarretik euskararen herrira* liburuaren aurkezpena izango da.

Eta 14:30ian, herri bazkarixa izango da.

GOIBEKOKALEK 100 ZENBAKI

GOIBEKOKALEk 100 zenbaki egin ditu eta egun berezixa izango da bixar GOIBEKOKALEko lantaldian parte hartu daben danendako. Hori egun berexiori ospatzeko, 16:00etan, Taupada taldiaren eskutik *Mari Sorgin* antzezlan izango da Espaloian. Hemen antzerkixan txotxongilluak erabiltzen dittue Taupada antzerki taldeekuek.

Eguerdi eta arratsalde osuan, berriz, GOIBEKOKALEko erretratuekin erakusketia izango da Espaloian. Hemen erakusketan 400 erretratu baiño gehixago izango dira ikusteko moduan.

Gabeko bederatzietan, herri afarixa izango da Espaloia aretuan. Afalostian, berriz, gabeko hamaiketan, Tapia eta Leturiakin erromerixia izango da.



IKOR KOTX

Gabian, Tapia eta Leturiakin erromerixia izango da Espaloian. Giro aparta izango dala seguru.

HERRITTAR DANOK GONBIDATUTA

Goibeko Kultura Elkartiak Euskalkixan Eguna dala-eta antolatu diran ekitaldi guztixetan par-

te hartzera gonbidatu nahi dittue elgetar danak. Euskalkixan inguruan gehixago jakin nahi dabenek aukera aparta izango dabe

goizian zihar. GOIBEKOKALEk egin daben ibilbidia ikusteko erakusketia be egitarauko azpimargarrixenetakua da.

Egitarau zabala antolatu dabe bixarko

EUSKALKIXAN EGUNEKO EGITARAUA

09:30ian

Badihardugu Elkarteko batzarra.

11:00etan

Hitzaldi-eztabaida irekixa. Zenbait ponentzia aurkeztuko dittue: 'Hezkuntzia eta euskalkixa', 'Hedabidiak eta euskalkixa', 'Administrazioa eta euskalkixa', 'Berbeta berua'.

13:15ian

Deba ibarretik euskararen herrira liburuaren aurkezpena.

14:30ian

Bazkarixa.

16:00etan

Umiendako antzerkixa: *Mari Sorgin*.

21:00etan

GOIBEKOKALEren 100. zenbakixa dala eta, herri afarixa

23:00etan

Erromerixia Tapia eta Leturiakin.

EGUN OSUAN, ERAKUSKETIA

Eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik gabeko 01:00etara, GOIBEKOKALEko kazetarixek honetan zazpi urtiotan etaratako erretratuekin erakusketia Espaloian. Batzuk argitaratutakuak eta beste batzuk orain arte gordeta euki dittue. Danera, 400 erretratu baiño gehixago.

LABUR

Gaur, gaztetxean musika eta kalimotxoa doan

Gaur, egubakoitza, 21:00etatik aurrera, kontzertua eskainiko dute gaztetxean sei taldek. Kontzertu hori 200 baietz biraren barruan antolatu dute herriko gazteek. Sei urte, Nabari, Ainke, At, Sastraka eta Damudot taldeen doinuak izango dira entzungai. Kontzerturako sarrerak hiru euro balio du.

Aurretik, 20:00etan, 200 litro kalimotxo banatuko dituzte musika taldeek. Jendea girotzeko hori egin dute bira osoan zehar.

Katekesia amaitu dela eta, askaria zapatuan

Zapatu arratsaldean, Espaloian izango den antzerkia bukatzean, iluntzeko 18:00ak aldera, askaria izango dute katekesian parte hartzen ari diren neska-mutikoe.

Askari horrekin, amaiera emango diote neska mutikoei aurtengo katekesiari.

Gaur, iluntzeko zortzietan, presoan aldeko bilkura

Gaur, hileko azken barikua denez, *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean bilkura izango da herriko plazan. Iluntzeko zortzietan izango den bilkuran, presoak Euskal Herrira ekartzeko eskaera egingo dute bertan batuko direnek.

Olio bilketa Maya ingurumen taldeak antolatuta

Hilero bezala, erabilitako olio batuko dute Maya ingurumen taldekoek gaur arratsaldean. Hain zuzen ere, 17:00etatik 18:00etara herriko plazan izango dira Mayakoak herritarrek eramandako erabilitako olio batzen.

UDAL AURREKONTUAK

Aurtengo aurrekontuak datorren eguenean eztabaidatuko dituzte

O.E.

Osoko bilkura izango da datorren eguenean, eta aurtengo aurrekontuak eztabaidatuko dituzte udal ordezkariak. EAJ-EAK egingo duen proposamenak aurrera egiten badu, aurtengoan, 1.132.593,9502 euroko (188.447.777 Pta) aurrekontua izango du Udalak.

Bailarako azken herria izango da Elgeta Udala aurrekontuak onartzen. EAJ-EAK hilaren 17an eman zien aurrekontu proposamena Batasuneko zinegotziei. Aurtengoan nahiko denbora izan dute aurrekontuak aztertzeko, eta herriko bi alderdi politiko onarpena izan dezakete aurrekontuek. Iaz, EHk aurka bozkatu zuen eta EAJ-EAko taldeak Gobernu Batzorde

detik kanporatu egin zuen horregatik.

Guztira, 113.277 euroko aurrekontua onartuko du seguruenik Udalak. Iaz, 1.003.672,8451 euroko (166.997.110 pta) aurrekontua onartu zuen Udalak. Igoeraren arrazoi nagusia da inbertsio gehiago egingo dituztela aurtengoan.

Inbertsio nagusiak


ZERTARAKO	ZENBAT
4. Sek. planeamendua	54.091 €
VIII. Sek. planeamendua	30.050 €
Arau Subsidiarioen aldak.	31.252,62 €
Kiroldegian	27.045,54 €
Ura Uriarte auzora	27.746,55 €
San Rokeko plaza	18.030,36 €
Espaloia Aretoa	18.030,36 €

Inbertsioak guztira 251.223,05 €

NAHIKO AURREKONTU ANTZERAKOAK

Elgetako Udalak onartuko duen aurrekontuan, pertsonal, zerbitzu eta interesek izango duten aurrekontua iazkoaren oso parekoa izango da. Udaleko pertsonalera 343.000 euro (56 milioi pta), zerbitzuetara 237.000 euro (39 milioi pta) eta interesetara 28.000 euro (4,7 milioi pta) bideratzea pentsatu dute. Transferentzietan dagoenaz, berriz, igoera azpimarragarria gertatuko dela zehaztu dute. Etxez etxeko zerbitzuak eta "Elgeta 21"-ean Udalak ipini behar duen kapitalak eragin dute igoera hori.

Aurtengo aurrekontuan inbertsio ugari zehaztu ditu Udalak. Iaz, 166.480,35 euro bideratu zituzten inbertsioetarako eta aurtengoan, 251.223 euro izango dira. Ondoko taulan inbertsio nagusien laburpena ikus dezakegu.



Mendi Federazioaren batzarra

Bihar, zapatua, 09:30etik aurrera, Euskal Herriko Mendi Federazioaren batzarra izango da Elgetan. Espaloian izango da batzarra eta bertan batuko dira Euskal Herriko mendi elkarteetako ordezkariak. Federazioko presidente Antxon Bandres ere bertan izango dugu. Aurrerantzean ere urteko batzarra Elgetan egiten jarraituko dute mendizaleen ordezkariak./O.E.

KIROLA

Xabier Uberak domekan ekingo dio aurtengo Lau t'erdiko Txapelketan jokatzeari

O.E.

Kirola atsegin duenak aukera zabala izango du asteburu honetan. Zapatu goizean, Bergarako Txapelketan bigarren partidua jokatuko du Elgetako Fo Fo Fo taldeak. Eta domekan, Xabier Uberak lehenengo partidua jokatuko du Lau t'erdiko Txapelketan.

ZAPATU GOIZEAN. FUTBOLA

Zapatuan, 11:00etan, Bergarako Ipintzan partidua izango du Elgetako Fo Fo Fo taldeak. Deskontrol Oi! taldearen aurka jokatu dute elgetarrek. Iaz, lehen fasea gainditu ondoren, Angiozarko taldearen aurka galdu egin zuten Fo Fo Fo taldekoek.

Aurtengoan ere bikain hasi dute txapelketa Fo Fo Fo taldekoek; izan ere, lehenengo partidua 4-0 irabazi zuten Bergarako Mongi-txarrak taldearen aurka.

ARRATSALDEAN, ARETO FUTBOLERA

Areto futboleko txapelketan maila altua dago aurtengoan. Aurrekoan, Elgetako bi taldeen arteko derbia jokatu zen. Txapelakoei nahikoa izerdituta lortu zuten garaipena La Kokotxaren aurka.



Garaipenarekin ekin dio Fo Fo Fo taldeak aurtengo Ipintzako txapelketari.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

- 15:00: Chievo-Spias.
Vicios
- 16:00: Bar El Arco-Vicios
Chievo
- 17:00: La Kokotxa-Komando Piperrak
Txapela
- 18:00: Txapela-MTS
Komando Piperrak.

EMAITZAK

La Kokotxa-Txapela	2-5
MTS-Bar El Arco	1-8
Arneketan-Vicios	4-0
Chievo-Komando Piperrak	3-7

SAILKAPENA


Taldea	P	J
1. Arneketan	9	5
2. Bar El Arco	8	5
3. Txapela	6	4
4. Vicios	5	4
5. Spias	4	4
6. Chievo	4	5
7. Komando Piperrak	2	4
8. MTS	2	4
9. La Kokotxa	0	5

Jarri lasai eta musika gozatu.

Musikaz blai, SOINUZ BLAI.

SOINUZ BLAI

- Eguenetan, 21:00etan
- Errepikapena egubakoitzean, 21:00etan
- Aurkezleak: **Maidar Albes** eta **Ugutx Usandizaga**



ERRETRATUZAHARRA

Dantza Txapelketa Bergaran, 1973

Euskadiko Dantza Sueltoke Txapelketaren 25. aldia jokatu zen Pazkoetan Bergaran. Guztira, hamazazpi bikotek hartu zuten parte aurtengoan eta Donostiako Andrea Pozak eta Jon Agirretxek osatutako bikoteak jantzi zuen txapela.

Dantza txapelketak betidanik egin izan dituzte Bergaran, eta horren lekuko, oraingo asteko erretratu zaharra duzue. Argazkia 1973. urtekoa da eta Bergarako Udal Pilotalekuan aterata dago. Jaso dugun informazioaren arabera, San Martin jaietan 15 urtetik beherako neska-mutikoen txapelketa batekoa izan daiteke. Moises Azpiazu eta Juantxo Urbieta genituen irakasleak eta Seminarioan egiten zituzten entseguak. Honako hauek dira trofeoz inguratuta argazkian agertzen diren ikasleak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Josune Sagastume, Nerea Larrañaga, Jaione Arana, Miren Berasategi, Aintzane Arana, Izaskun Pardina, Amaia Agirre, Ana Agirre,



Moises Azpiazu eta Juantxo Urbieta.

Makurtuta: Mikel Alberdi, Edu Muruamendiaraz, Jesus Mari Azula, Daniel Azpiazu, Juanjo Azula, Jabi Abio, Luis Miguel Azpiazu eta Xabier Errasti.

Argazkia: Nerea Larrañaga

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Irizar jauregia XVII. mendetik gaur egunera

Gaurko Irizar jauregia Urrutia Espilla jauregia izenarekin ezagutzen zen lehen. XVII. mendekoa da. Ana de Espilla eta Ignacio De Urrutia 1659. urtean ezkondu ziren, eta handik bost urtera jauregiko balkoien lehen erreferentzia egiten da hainbat agiritan. Jose Manuel De Irizarrek 1778an erosi zuen etxea eta jauregiak galdutako garrantzia berreskuratu zuen.



≈ 1978

70eko hamarkadan, Irizar jauregia nahiko utzita zegoen, argazkian ikus daitekeenez. 80ko hamarkadan, etxea berritu egin zuten.



2001

Irizar jauregian udal bulegoak egon ziren udal etxea berritu zutenean. Gaur egun, Helduen Heziketa Eskola eta BERRIGARA daude han.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara



OGIZUN

koop. elk.

okindegia

Ibargaraiko dendaren

INAUGURAZIOA

larunbata, ekainaren 1a, 19:00etan

Ibargarai 44-46. Tel.: 943 76 45 53

San Pedro 21

BERGARA

943 76 20 49

Zubillaga 10

OÑATI

943 78 24 13



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta
lasai-lasai errepidean

Problemarikgabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune

 **MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



ELGOIBAR B.H.
Institutua
2002 / 2003



Erdi mailako hezkuntz zikloak

A eta D eredua
Merkataritza
Ibilgailuen elektromekanika
Karrozeria
Erizaintza laguntza osagarriak

Goi mailako hezkuntz zikloak

A eta D eredua
Administrazioa eta Finantzak
Automozioa
Ingurumen Osasuna

Arregitorre 2
Tel.: 943 74 80 19
Faxa: 943 74 82 30
Posta elektronikoa: bulegoa@elgoibar.hezitek.net

Aurrematrikula epea:
ekainaren 3tik 12ra arte

- **600 ikasle inguru** beraien etorkizuna jorratzen
 - **Azpiegitura teknologiko aurreratuena.** Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz
 - **ISO 9002 kalitate ziurtagiria.** Prozedura garden eta kontrolatuak
 - **80 lizentziatu, ingeniari eta diplomatu.**
- Unibertisitate eta goi mailako zikloetarako **prestakuntza zuzena**
• **Lanpostua berehala lortzeko aukera. Lanbide Heziketako Sare Integraleko partaidea.**



GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



**AGIRRE
MARGOAK**

Artzamendi 2,
5-D
943 76 53 82


- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA
ITURGINTZA



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak




Aribar pol. C-4,
S. Juan auzoa
943 76 02 78
670 422 059
F 943 76 02 78

- Pintura
- Dekorazioa



Ondarre 9
943 76 62 45
F 943 78 71 16

- Orotariko arotz lanak
- Etxeko altzariak, logelak, sukaldeak



Irala kalea z/g
943 76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak

Iturkintz Berri S.L.

Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztietako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

Antonio Bourzas

Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa



Zurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeko tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

**Andres
margoak**

Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA
Margoak

Amillaga 1,
1. pabilioia
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32

- Orotariko pintaketa lanak



Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak

UGARTE
AROSZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



UR
kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak

E izarra
elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

Goibekokale

ELGETA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 31 / 100. zenbakiarekin batera banatutako gehigarria

Liburuaren Eguna izan zela begirako erosi liburu berrien aurkez-egin zuten plazan. aruak aurkezteaz gain, liburutegian zaharrak geratu diren edo errepikatuta dauden liburuak oparitu zituzten.

Denetara, 600 liburu oparitu zituzten. Liburutegian leku falta dagoela eta aruak geratu diren zehaztasun zehaztasun zuten dekoek. Era guz-ak zeuden, hala o moduko ipui- eleberri luzeak, abar. eak hurreratu plazan jarri guraso batzuk ili ziren, gus- aurkitzeko



Adin askotariko jendea inguratu zen liburu berriak ikustera.

Kopa txap... bazi du

tuan, Eibarko Cel- aurka jokatu zuen B... elketako Kopako fil... ones Intxortak. E... ten arazo handi- rik... irabazteko. Hiru... k euren joko a egia... npakoek, eta hor... irabazi zuten. L... n ibili diren arren... garren pos- tuan a... stanpakoeak. Aurten... ia garaipe- narekin... stanpak.

B... Fu... az... go... hiru... ARANT... Berga... netako... Aranze... zaren e... Uber... rren mar



Est... pacion... ortako jokala... ozik Kopako fina... bazi et... ero.

SKETA

egin zuen ren libu- n. Mahai begirako ak gera-

tu ziren. Aurten, 200 bat liburu erosi dituzte. Maria Elena Ezte- naga liburutegiko arduradunak esan zigunez, ... eak dira inter- resgarrienak: ... Etxeba-

rriaren Egun denak ez di... dinak, Koldo Zuazoren E... ren sendabelarrak, Ali... Ma... od-en El regreso eta... Ma... nez de Lezeal... La ab... sa.

abier Aranzeta · Ira

har da, ge...

duako autopista barririk egittel...



Zorionak Goibekokale!

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

Herritarren babesakin 100. zenbakira heltzia lortu dogu

GOIBEKOKALE argitaratzen hasi giñanetik hona, zazpi urte pasau dira. Hasierako zailtasun danak gaindittuta, esku artian daukagun zenbakixa berezixa da. Izan be, horrenbeste letra, berba eta esaldi idatzi eta gero, 100. zenbakira heldu gara.

Zuen danon laguntziakin heldu da GOIBEKOKALE 100 zenbakixetara. Zazpi urte dirala gaztetxiak martxan ipiñitako proiektua aurrera eruateko testigua Goibeko Kultura Elkartiak hartu zebaniaz. Bide horretatik, aurrera egin dau GOIBEKOKALEk eta gaur egunian astero-astero bidelagun dittu *Goienkaria* eta GOITB. Danon artian, gure herrixetan gertatzen diranak ibarreko etxe guztietara zabaltzia lortu dogu. Hortaz, aurrera begira be ez daukagu ez lan makala. Aurrerantzian be, barikuro-barikuro Elgetan gertau diranak kontatzen jarraitzeko, herritar danon laguntzia biharko dogu. Hurrengo orrialdietan honetan urtiotan egindako bidia laburtzen ahalegindduko gara.



Hasieratik herritar ugarik erakutsi zozkuen holako proiektu bat aurrera eruatian aldekuak zirala. Eskuman, 1., 25., 50. eta 75. aliak dittuzue.



Moderas Gallastegi, s. a.
MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA





Moderas Gallastegi, s. a.
MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA



Moderas Gallastegi, s. a.
MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA



KOMIKIXA/ Igor Arizmendiarieta



Danon artian, gure herrixan gertatzen diranak ibarreko etxe guztietara zabaltzia lortu dogu

Maria Estherrek 100 zorion zuon 100. zenbakian!

MARIA ESTHER ileapaindegia
943 76 81 67



SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •




- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

Zorionak Goibekokaleri 100. zenbakian!

Ze moduzko esperientzia izan da?



BITTOR GALLASTEGI / MAKETATZAILLIA
Danok egin dogu bultza GOIBEKOKALERen alde

GOIBEKOKALERen bidian benetan eskertu bihar da herritarren laguntzia. Bakoitzak bere bultzadaxua emon dotsagu proiektuari eta, danon artian, hasieran genkan helburuak betetzen jua gara. Guretako esperientzia polita izan zan GOIBEKOKALEn jardutia, batzuetan sufriduta be bai, baiña merezi izan zebana.



OLAIA JIMÉNEZ / ZARRAPAREN EGILLIA
Herri aldizkarixa sortzia oso baikorra izan zan

Hasieran fanzine bat egin nahi giñuala kontuan hartuta. Herri aldizkari bat sortzia oso baikorra izan zan. Herrixari begira gartu dan proiektua izan da eta beti herrittarrak alde euki dittuana. Aldaketiakin, neurri baten galdu egin da herrixak GOIBEKOKALEkin zeukan identifikaziñua. Ia berreskuratzen dan.



IGOR ARIZMENDIARRIETA / KOMIKI EGILLIA
Las asko eskatzen dau GOIBEKOKALE egittiak

GOIBEKOKALEko lantaldian parte hartzia esperientzia polita izan zan. Han ikasi neban ale bat ataratzeko, txixixa izan arren, ikusten ez dan las asko egin bihar dala. Ordu asko lan egin eta gero, etxian GOIBEKOKALE jasotzia izaten zan momentu onena. Goienan sartzia erabaki giñuan eta oin astero-astero jasotzen dogu.



OIHANA SARASUA / PUBLIZIDADEKUA
GOIBEKOKALEk freskotasanian irabazi dau

Euskerazko aldizkari bat eukitzia garrantzitsua da herrirako, eta herrittarek horregaittik erantzun izan dabe ondo. Gaiñera, hille-ro biharrian astero-astero gure herriko eta inguruko notiziak eukitzia garrantzitsua da. GOIBEKOKALEk freskotasanian irabazi dau eta ia aurrerantzian be holan jarraitzen daben.



GORKA ARIZMENDIARRIETA / BAPATEKUEN EGILLIA
Benetako lagunak egitteko balio izan dosku

GOIBEKOKALEn bizi izandakua esperientzia pozgarrixa izan zan. Hutsetik hasi giñan eta begittu noraiño heldu gazen. Lantaldian gabizenok benetako lagun egin gara eta hori be baloratzekua da. Herrixan laguntasuna beti izan dogu eta euskaraz argitaratutako aldizkarixa aurrera eruateko hori be derrigorrezkua izan da.



Txapeldunen liga!

S ortu zenean mailari eustea zen GOIBEKOKALERen helburua. Denboraldia aurrera joan ahala indartuz joan zen, ordea. Ez zen ibilbide erraza izan. Bajek eta zenbait taldekideren sasoi txarrak krisialdi txikiak —eta ez horren txikiak— eragin zituen taldearen ibilbidean. Hala ere, jardunaldiak jokatu ahala, Klubaren mugak agerian geratzen ziren heinean, helburuak ere zehazten hasi ziren. Zailtasunak zailtasun eta mugak muga, azken ahalegin bat egitea erabaki zuen. Azken partidari eta arauzko denbora bukatzeaz zegoenean izan zen arren, saiakerak bere fruitua eman zuen. Debagoieneko Txapeldunen Ligarako sailkatu zen GOIBEKOKALE, sari ederra. Behin talde indartsueneren Ligan murgilduta, hala nola, *Kontuola, Berrigara, Arrasate Press, Aretxagazeta...* ez du jokoz kanpo geratzeko beldurrik izan behar. Ikasteko eta sendotzeko aukera paregabea dauka, eta hazi besterik ez da egingo. Zazpi aldiz, Zorionak!

HARITZ GALLASTEGI



Gogoratzen?

E hun, 100. Hasi ginenontzako mezua: 100 topaketa, ehun lagun, 100 burukomin. Ehun gaupasa, 100 argazki, 100 kilometro. Ehun kolaboratzaile, ehun gutun eta 100 diskete. Ehun batzar, 100 haserre, ehun akordio. 100 elkarrizketa, 100 zuzenketa, ehun dei. Ehun bisita, ehun boligrafo, 100 gertakizun. 100 aitzaki, 100 maketa, 100 ukitu. Ehun ideia, ehun ordu, 100 euro, ehun kamiseta. 100 laguntzaile eta 100 ale. Ehun kronika, 100 hanka-sartze. Ehun harpidedun. Ehun urduritasun, 100 ekintza, ehun susmo. 100 kontakizun, ehun protagonista. 100 banatzaile. Ehun kritika, ehun egonezin, ehun esperientzia. 100 errepasso, ehun atzerapen, ehun desio. 100 gezur kontatu dizkizuet eta egia bakarra, 100 ale! Harro egoteko ehun ale eta, batik bat, harro egoteko ibilbidea erakutsi duelako: GOIBEKOKALE urrutiago heltzen da, maizago dago gure artean, profesionalagoa bihurtu da. Hainbeste espero al zenuten? Jarraitzen dutenei animatzeko: Nik gehiago nahi dut.

ANA GILLEGI



ELGETAKO UDALA

Aspaldi hasittako bidia, lortu dozue 100. alia!

Zorionak Goibekokale!

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

20690 ELGETA

Zorionak eta zenbaki askotarako, Goibekokale!

100 zenbaki...

Danon bultzadia izan da biharrezkua GOIBEKOKALE egitteko

OXEL EROSTARBE

Zazpi urte pasau dira gure herri aldizkariko lehenengo alia Elgetako etxe gutxietan jaso ziñuenetik hona. Honetan urtiotan makiña bat jendek lagundu dosku. Alerero publizidadia jarrixaz, erretratuak ataraaz, kolaboraziñuak idatzizaz, banaketia egitten lagunduaz eta gure galderei erantzunaz. Bakoitzak gure laguntzia emon izan dogu GOIBEKOKALE aurrera ataratzeko. Denboriakin hillekarixa bera be hobetzen jua da. Lehenago txuri-beltzian zana koloretan argitaratzia lortu giñuan, orrixak be gehittu giñuaz eta azken urtian hillekarittik astekarirako jauzixa egin dogu.

HASIERIA BENETAN ZAILLA IZAN ZAN

Zailla, ez genkalako lokalik, ez genkalako ordenadorerik eta ez genkalako Udalaren laguntzarik. Hala eta be, herritarren laguntzari eta bultzadiari eskerrak, GOIBEKOKALEko lehenengo

*Herritar danok
alde berdiñera egin
dogu tira
GOIBEKOKALEk
aurrera egin daixen*

*Elgetan gertatutako
notizia danak batu
dittu
GOIBEKOKALEk
zazpi urtiotan*

alia argitaratzia lortu giñuan. Honek lanok egitteko, lantalde-txua osatzen jua giñan eta bai guk bai herritarrok sinisten giñuan proiektuari Udalak be laguntzia emotia lortu giñuan.



Hasieratik izan dau GOIBEKOKALEk herritarren babesia. Proiektua ezagutzeko egindako batzarretan jente asko batu zan.

**Elgetako EAJ
Goibekokalerekin, beste
marka bat hautsi arte.
Zorionak!**





GOIBEKOKALEko lantaldian jente askok hartu dau parte eta hori derrigorrezkoa izan da aurrera egitteko.

GOIBEKOKALE

GOIBEKOKALE herritar danon proiektua da eta aurrerantzia be halan jarraituko dau izaten.

GOIBEKOKALE-REN ONDOTIK, GOITB
Guria herri euskalduna da. Hasieratik euskara hutsian egin izan dogu aldizkarixa eta beti izango da halan. Zazpi urtian pausuak emoten jua gara, poliki-poliki, baiña beti aurrera; eta ia luzararako dan. Hurrengo emon biharreko pausuak be argi dittugu. Elgetarrok be gure herrixan eta

GOIBEKOKALEn
astero eta GOITBn
egunero, gure
herrixan
gertautakuen barri

ibarran gertatzen diranak telebistaz ikusteko aukeria daukagu. Horrenbeste atzerapenenen

ostian, GOITB Elgetara heldu da. Egunero inguruko herrixetan gertatzen diranak ikusi geinke GOITBn. Zazpi urtian egindako bidian danetik kontau dogu. Notizia onak eta tristiak, barriakin negar egitteko entrebistak, lagunnen erretratuak eta norberanak, lehen hillero eta oin astero, Elgetan gertau diranak kontatzen ahalaginddu gara. Datozen urtietan be halan izan deilla, gure hizkuntziak bizi jarraitzen daben seiñala izango da eta.

IBAN ARANTZABAL / GOIBEKO KE-KO PRESIDENTEA

“Gure lana herrixakin lotuta egon da, eta dago”

Honetan urtietan GOIBEKOKALEko zuzendari izan da Iban Arantzabal. Gaur egunian, Telematikan dihardu lanian. Ibanekin egon gara zazpi urtien baloraziñua egitteko.

GOIBEKOKALEren hasieria ez zan bat be erreza izango.

Ez. Udalian gobernuburu ziranen aldetik euki giñuazen traba haundixenak. Baiña, kontrara, herrixan bultzadia oso inportantia izan zan, eta da. Gure lana oin be herrixakin lotuta ikusten dot, bestela hobeto geldi egotia. Datozen proiektuetan seguru herrixak bultza egingo dabela. Ia zelan portatzen diran politikuak...

Ze moduzko harrerria izan zeban hasieran?

Gutxik egitten zeben gure aldeko apustua eta laster aspertuko giñala uste zeben. Erakutsi dogu borondate-lanarekin eta talde senduakin posible zala. Gaiñera, oin esku onian dago GOIBEKOKALE eta proiektu barrixak be badakaguz. Ia horrek aurrera etaratzen laguntzen doskuen gure politikuek, bultzada premiñan gare-eta.

Ze emon dotsa GOIBEKOKALEk Elgetari?



Informaziñua, informaziñua eta informaziñua. Eta horrekin lotuta helburu pilla bat bete dittugu: mugimendua sortu, euskaria bultzatu, gure berbetia inddartu...

Hillebetekari izatetik asterkari izatera egindako saltuaren gaiñian, ze baloraziño?

Oso positibua. Gaur da eguna medixo erdaldunei aurria hartzen dotsaguna. Idatzizkuaz gain, telebista eta irratia be badakagu, eta laster webgunia be bai. Lau hankak ipinitta egongo dira, eta espaiñol hutsian dabizenak baiño bizkorrago eta kalidade hobiakin zabalduko dogu informaziñua.

Independentzia bidean

EUSKAL HERRI EUSKALDUN ETA SOZIALISTA
GURE AMA LURRA DEFENDATUZ

Euskal Herria eraikitzen



ELGETAKO

batasuna


Zenbat gauza gertatu diran zazpi urtitan! Danak ezin dira kontatu...



Eskolako neska-mutikuek lan handixa egin dabe GOIBEKOKALE banatzen.



GOIBEKOKALERE azken urteurrenetan afari ederra gertatu doskue Intxorta Elkarteko sukaldarixek.



Goibekok hartu dau GOIBEKOKALE argitaratzeko arduria.



Aldizkariko loterixia urtero egoten da kalian.



BOLINAGA
METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

Zorionak Goibekokale!



**KONTXI
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 943 76 80 09

Segi holaxe Goibekokale! Zorionak!

GOIBEKOKALE astekari izatia eragin dute; hurrengo helburua, aisialdirako gunia lortzia da

O.E.

Goibeko Kultura Elkartia arduratzen da iaztik GOIBEKOKALE argitaratiaz. Goierna egituraren barruan euskarazko komunikabidiak bultzatzen dihardute. Goibeko Kultura Elkartia herriko elkarte garrantzitsuenetakua da, eta 100 bazkide baiño gehixago ditu.

GOIBEKOKALEk 100 zenbaki egin dittuan egunian be, etorkizunari itzaropenez begiratzen detsa Goibeko Kultura Elkartiak.

Izan be, aldizkarixa barritsu eta gero, ibarreko telebistia herri-ekarri eta gero, adin desberdinetako herritarren plazia izango dana gero eta gertuago ikusten dabe.

Goibeko Kultura Elkartia 100 herritarrek baiño gehixagok osatzen dabe. Udalakin akordio batera helduz gero, hiru urte dala aurkeztu zeben proiektuak, Espaloia Kafe Antzokixak, argixa ikusiko dabela pentsatzen dabe. Halan izanez gero, Espaloian proiektua herrira aurkeztuko dabe. Hortaz, hurrengo astietan egingo diran batzarretan parte hartzeko deiza egin nahi dotse bazkide danei Goibekok.

HERRITTARRON ESFORTZUARI ESKER

Espaloian egingo dan plazan era askotako ekintzek izango dabe garrantzixa. Goibekoren helburua ekitaldi parte hartzailliak bultzatzea izango da, herriko kultura eskeintzako hutsunia betetzeko. Kulturari emongo dotse



Espaloian azpiegitura egokixa sortu eta adin guztietako jentandako kalidadeko kulturua bultzatzea da helburua.

garrantzixa, batez be, kalidadeko kulturari eta, ahal dala, parte hartzailliari.

Goibeko Kultura Elkartiak argi dauzka zeintzuk diran helburuak eta horretarako derrigorrezkua ikusten dabe azpiegituria garatzen juatia. Elgetak dittuan biharrak jakindda, Kafe Antzokixa izango da kultura ekintzak aurrera eruateko diru iturrixa. Ez dabe proiektua herrira mugatu

nahi. Elgetarrak oso garrantzitsuak eta biharrezkuak izango diran arren, Espaloia aurrera eruateko, proiektuak ibarreko prespektibia izan bihar dabela argi eta garbi dauke.

Elgetako talde guztiek eukiko dabe lekua Espaloian. Ez dabe nahi inori bere lekua kentzerik. Kultura ekintzak talde batek edo bestiak antolatzea berdin detsala pentsatzen dau Goibekok. Hala

eta be, argi daukate antolatzen daben dana ahalik eta onduen antolatu bihar dala.

Goibekondako, Espaloiak esfortzu haundixa eskatuko dosku herritarroi. GOIBEKOKALEkin egin zeben moduan, hutsetik hasiko dira. Pausuz pausu, geratu barik. GOIBEKOKALEren hasierako helburuak betetzen jua ziran moduan, Espaloian be betetzen juatia da asmua.

Espaloia errealitatea izango da politikuekin adostasuna lortuz gero

Goibeko Kultura Elkartian adin eta eritzi askotako elgetarrok egingo dogu bat

Adin guztietako herritarrek elkartuko diran plaza sortu nahi dogu Espaloian

Herriko elkarte eta talde danek zabalik izango dittue Espaloia Kafe Antzokiko atiak



24 ORDUKO ZERBITZUA
619 692 336
943 789 057 / 943 768 025

- Elektrizitate eta antena instalazioak jartzen ditugu eta mantentze-lanak egiten ditugu
- GOITB ikusteko beharrezko diren aparailuak ere jartzen ditugu

Zorionak Goibekokale!

EROSLE

Maria Asun Agirrek

zorionik beroenak eman nahi dizkie

Goibekokale egiten duten guztiei.

Zorionak, eta etor daitezela beste 100 zenbaki!

EROSLE



ZORIONAK 100 ALDIZ, GOIBEKOKALE!

Hodi mekanizazioa eta estanzio metalikoa 400 tn.ra arte
Betsaide pol. 2-B lur saila, B9-B12 pabil.
PK 106. 48230 ELORRIXO
T: 94 623 19 14 F: 94 623 19 28

**ESTAMPACIONES
INTXORTA S.A.**

